

**HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOKO  
PROIEKTU BAT DEUSTUKO  
MENDITARRAK MENDIZALEEN  
TALDEARENTZAT**

**ROBERTO MANJÓN LOZOYA**

**2006-6-29**

# AURKIBIDEA

## **I. SARRERA**

1. BILBO ETA EUSKERAREN NORMALIZAZIOA
2. AISIA ETA KIROLA BILBOKO EUSKERAREN NORMALIZAZIOAN

## **II. PROIEKTUAREN IZAERA ETA EREDUA**

1. ERAGILETZA
2. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAREN XEDEA
3. APLIKAZIO-ESPARRUA
4. DIMENTSIOA
5. HARTZAILEAK
6. PLANGINTZAREN EREDUA
7. PLANGINTZAREN METODOA

## **III. PLANGINTZAREN URRATSAK**

1. ABIAPUNTUA ETA BISIOA
2. ERABAKIA
3. PLANGINTZAREN LEHENTASUNAK ZEHAZTEA
  - 3.1. Diagnostikoa
  - 3.2. Lehentasunak
  - 3.3. Kronograma
  - 3.4. Komunikazioa
  - 3.5. Erabakia berritzea eta zabaltzea

#### 4. PROGRAMAK

- 4.1. Programa: taldearen barruko zerbitzu-harremanak
- 4.2. Programa: taldearen barruko kudeaketa-harremanak
- 4.3. Programa: taldearen kanpoko zerbitzu-harremanak
- 4.4. Programa: taldearen kanpoko kudeaketa-harremanak
- 4.5. Programa: prestakuntza eta aholkularitza

#### 5. EBALUAZIOA

##### 5.1. ETENGABEKO EBALUAZIOA

##### 5.2. EBALUAZIO ZIKLIKOA

### **IV. AZKEN GOGOETA**

### **BIBLIOGRAFIA**

# I. SARRERA

Lan honen helburua mendizale-talde baten hizkuntza-plangintza baterako proiektua egitea da. Aukeraren arrazoiak errazak dira: batetik, Bilbon bizi naiz eta Deustuko Menditarrak taldekoa naiz, horixe izanik bazkide naukan Bilboko elkarte bakarra; bestetik, oso interesgarria iruditzen zait hizkuntza-normalizazioa Bilbotik eta, are gehiago, aisia- eta kirol-elkarte baten ikuspegitik aztertzea, inguru horretantxe azaltzen baita euskal hiztun-elkarteak gaurko giroan eta, ziur aski, etorkizunean bizirik irauteko aurre egin beharreko zenbait erronka nagusi.

## 1. BILBO ETA EUSKERAREN NORMALIZAZIOA

Lehenengo eta behin ikus dezagun Bilbon euskeraren egoera zertan den. Patxi Juaristiri jarraituz,<sup>1</sup>

*Bilbon Bizkaia osoan baino gutxiago hitz egiten da euskaraz (Bizkaian %11 euskalduna da eta Bilbon % 4,6). Euskaldunen ehunekoa Bizkaia osoan baino txikiagoa den heinean (%9,7 Bilbon eta %19 Bizkaian), gutxiago dira euskaraz harremanak egiteko edota euskara erabiltzeko aukerak. Zenbaki absolutuetan euskaraz dakitenen kopurua handia bada ere (II. Soziolinguistikazko Maparen arabera 34.487 euskaldun daude Bilbon), Bilboko euskaldunak galdu egiten dira erdararen itsaso zabalean. Hala ere, Bilbo Gasteiz (%2,8) eta Iruñea (%2,5) baino euskaldunagoa da; hori bai!, Donostia (%15,8) baino erdaldunagoa da.*

*Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea aztertzen badugu, ikusten duguna da Bilboko biztanleriaren %5ak euskaraz dakiela baina ez duela kalean erabiltzen. Hau da, Bilboko biztanleen %9,7ak euskaraz daki baina erabilera %4,6koa da. Zentzu honetan, bilbotarrak bizkaitarrak baino erdaldunagoak direla esan badugu ere, azpimarratzekoa da apur bat txikiagoa*

---

<sup>1</sup> Juaristi, Patxi (2002), 90-91 orr.). Ikusten denez, kontraesana dago zifretan, Bilbon euskera dakitenak batean %4,6 eta bestean %9,7 omen dira eta. Badirudi %4,6 erabilera dela, ez ezagutza.

*dela euskaraz jakin eta kalean hitz egiten ez dutenen ehunekoa (gogoratu Bizkaitarren %6-7ak euskaraz jakin arren ez duela kalean hitz egiten). Agian, Bilboko euskaldunek bizkaitarrek baino euskararen aldeko kontzientzia apur bat handiagoa dute, hain zuzen ere euskaraz aritzeko arazo gehiago dituztelako.*

*Neurketek argi erakusten dute, bestalde, apurka-apurka bada ere, euskararen erabilera gora doala Bilbon. 1989. urtetik 2001. era %2,5etik %4,6ra igo da Bilboko kaleetan euskaraz berba egiten dutenen ehunekoa. Azken lau urteotan gertatu den igoera ia-ia ohartezina bada ere (%4,5etik %4,6ra), Iruñean eta Gasteizen ez bezala, erabilerak goranzko joera duela erakusten du.*

Izan ere, EUSTATEK<sup>2</sup> azken neurketetan zifra altuagoak ematen ditu ezagutzari bagagozkio, erabilerarik gabeko ezagutza posible dela onartzen badugu behinik behin:

Guztira	Elebidunak	Alfabetatuak	Ia elebidunak	Erdaldun elebakarrak
342.382	53.051	44.331	91.204	198.127

Ikusten denez, elebidunen portzentajea %14 inguru da eta, "ia elebidunak" kontuan hartuta, euskera jakin edo ia dakitenek erraz gainditzen dute populazioaren herena.

Gune metropolitano baten gainean horrelako datuak ikusita, itxaropen handiak piztu litezke, baina erne ibili behar da beste baldintza batzuei so:

- Dakigunez, ustezko elebitasun maila horrek ez du erabilera islatzen, ezta hurrik eman ere.
- Datuak hizkuntzaren ezagutza erantzun subjektiboez baliatzen den inkesta baten bidez lortzen dira, ez laginketa objektibo baten bidez. Horrek duda handiak pizten ditu datuen kalitateari buruz, interferentzia ugari eta sakonak izaten dituzten gaiei buruzko erantzunetan oinarrituta baitaude.

<sup>2</sup> EUSTATEn web orrian, 2001.

Etxeko erabilerari bagagozkio, EUSTATEk datu hauek ematen ditu, esan bezala, tentuz hartzeko modukoak:

Euskeran aktiboak	Ele bietan aktiboak	Pasiboak
4.548	3.522	3.806

Ikusten denez, datuok, irakurketarik positiboena egin arren, ez dute hain ikuspegi baikorra sortarazten.

Egoera horretan, zein dira euskeraren normalizazioak izan ditzakeen xede egokiak, lehentasunak? José María Sánchez Carriónnek dioenez, oro har, "el problema del Euskara no es cuantitativo, sino cualitativo".<sup>3</sup> Eta ondoren gaineratzen du euskal hiztun-elkartearen arazo kualitatiboa zertan datzan: "la dispersión territorial, funcional y política de sus habitantes". Jakina, arazo hori oso nabarmena da Bilbon, eta dudazkoa izan daiteke Patxi Juaristiren datuok erakusten dutena hiztun-elkarte bat den edo, behintzat, zein neurritan den.

Sánchez Carrionek Bilboko hiztunok deskribatzean dio talde soziolinguistiko nagusia "natibizatu" gabeko ("euskaldundu"?) nerabeek eta helduek osatzen dutela. Eta honelako ezaugarriak omen dituzte:

*Zonas donde la motivación cultural o laboral está claramente disociada y descompensada de la capacidad de uso natural y espontáneo del idioma que ofrece el entorno, que es muy baja. A causa de ello se habrá producido un bloqueo en la progresión lingüística de los aprendices, y será normal encontrarnos en ella con una disparidad entre el esfuerzo invertido en el aprendizaje y la competencia lingüística lograda.*<sup>4</sup>

Horixe da, antza denez, Bilboko auzoen egoera, eta hiztun gehienek "aprendiz no consumado" omen dira.<sup>5</sup> Guztiarekin ere, auzo batzuetan zertxobait handiagoa da euskal hiztunen presentzia eta nabarmenki handiagoa erabilera; gainera, nortasun handikoak izanik, haietan merezi omen du hiri osoari begiratu ez ezik, auzoari ere bereziki begiratzea normalizazio-xedeak proposatzerakoan, auzoko plangintza baten ikuspegitik.<sup>6</sup> Deustua auzoa da horietatik bat.

---

<sup>3</sup> Sánchez Carrión, 1999, 50.orr.

<sup>4</sup> Ibidem, 249-250. orr.

<sup>5</sup> Ibidem, 258. orr.

<sup>6</sup> Ibidem, 265. orr.

Autore berak proposatzen du<sup>7</sup> normalizazio-jardueraren iparrorratza: Euskal hiztun-elkartea trinkotzea. Zer da trinkotze hori? Hitztun-elkartek irauteko moduko egoera batean jartzea, ikasketa-erabilera zirkuitu osoa bideragarri eginez; bestela esanda, hizkuntzaren prozesu ekoizleak eta ugaltzekoak (transmisioa) ziurtatzea. Hortaz, hauek lortzean datza trinkotzea:

- Ikasketa naturala eta kulturala.
- Ezagutza era erabilera.
- Talde soziolinguistikoak, ikasteko baldintza onak dituztenek ondoen dakitenengandik ikas dezaten, ondo dakitenek motibazioa izan dezaten erabiltzeko eta transmititzeko.

Zer egin behar den hiztun-elkartea trinkotzeko? Hizkuntzaren eremu sinbolikoa nuklearizatzea. Lehenengo eta behin hiztun-elkartearen gune sinbolikoa artikulatu behar da, haren ondoan gutxika-gutxika bil daitezten hiztun sakabanatuak. Hitztun-elkartea gune sinbolikoaren bidez trinkotzeak bakarrik ziurta dezake biziraupena.

Sánchez Carrionen proposamena Fishmanen ikuspegitik hurbil dago.<sup>8</sup> Aitortu behar da Joshua Fishmanen hizkuntza-egoeren sailkapenari begiratuz gero, Bilbo metropolitanoa ez zaiola erraz egokitzen maila bakar bati. Nolanahi ere, agian Fishmanen hiztun-elkartearen seigarren desintegrazio edo hizkuntza-ordezkapen mailan kokatu behar genuke, nahiko kokapen baikorra bestalde, dudazkoa baita ez ote dagoen zazpigarren eta seigarren mailaren artean. Ereduarekiko aldeak dauden arren, zilegi bekit Fishmanen seigarren mailaren ñabardura nagusi batzuk hona ekartzea:

- Familia eta lagunartean, auzoan eta kale-bizitza hurbilean, euskararen presentzia (oso) kolokan dago. Etxe-etxean ere, ahul dago euskera, eta arriskuan. Erdararen presioan gero eta nabarmenagoa da, ez zaharretan baina batez ere gurasoetan eta gazteetan:
- Seme-alabekin ere erdaraz errazago eta sarriago maneiutzen dira: erosketak egitera joaterakoan, lagunartean eta, hainbatetan, etxean bertan ere bai.

---

<sup>7</sup> Ibidem, 303-306. eta 353. orr.

<sup>8</sup> Fishmanen teoriei Mikel Zalbideren bertsiotik jarraituko diet, Bibliografian jasota dagoen bezala.

Egia esan, Bilboren egoerak horren antza badauka ere, gure kasuan azpimarratu behar da elebidunak –gurasoak nahiz gazteak-gehienetan euskaldun berriak direla eta gune sakabanatuak eta isolatuak direla, onenean ere. Horregatik, hein batean, Bilboren zertzeladek Fishmanen zazpigarren ordezkapen-mailaren antza ere badute, seigarrenarena baino gehiago zenbaitetan. Zein da, beraz, Bilboko euskal hiztun-elkartearen egoera? Ez ote dago sailkapen-eredurik? Jakina, baina ez bere herrian desegiten ari den talde etniko baten ikuspegitik. Bilboko euskaldunen egoera arrunta da oso mundu zabalean: metropoli bateko minoria batena.

Horiek horrela, Sánchez Carrionen proposamenak Fishmanen ekarpenez osaturik, lehentasuntzat jotzen dut:

- Batez ere, euskaldun izan nahi dutenen kontzentrazio demografikoa bultzatzea, elkarrekin bizitzeko ahalik eta sare gehien sortuz (*demographically concentrated modus vivendia*), oso modu prekarioan bada ere, nolabaiteko “hiztun-elkarte” osa dezaten. Horregatik, era berean, arreta jarri behar da, familia horietako eta, oro har, euskaldun izan nahi duten gazteek beren arteko harremanetan erderatik euskerara pasa daitezzen edo, oraindik euskaraz ari badira, jardunbide horri eutsi diezaioten.
- Orobat, lehentasuna da belaunaldien arteko transmisioa bermatzea euskaldun izan nahi duten familia horietan (*intergenerationally continuous modus vivendia*).

## **2. AISIA ETA KIROLA BILBOKO EUSKERAREN NORMALIZATIOAN**

Zer toki eduki dezake mendizale-talde batek, auzo-ikuspegi batetik abiatuta, eta helburu “apal” horiek aitortuta, Deustuko euskal hiztun-elkartearen trinkotze-lanean? Izaro Susperregiren<sup>9</sup> artikulu bati narraiola, esan dezadan azken urteetan euskararen normalizazioan lanean ari diren agenteek behin eta berriro azpimarratzen dutela aisialdiak lan horretan duen garrantzia.

Baina, Susperregirekin bat, ikus dezagun aisiaren kontzeptua eta egoera zehaztea ez dela erraza izaten eta maiz, kontzeptu, definizio eta, ondorioz, egoera ezberdinez, aritzen garela.

---

<sup>9</sup> SUSPERREGI Izaro (2006)



Susperregik dioenez, oraintsu arte aisialditzat osagai batzuen batuketa jo izan da: **Denbora libre** + **Askatasuna** + **Gozamena**, baina batuketa hori ez dator guztiz bat gaur egungo joerekin, batez ere haur eta gaztetxoek kasuan. Horren ondorioz, gero eta gehiago murrizten ari da **antolatu gabeko denbora**, betebeharrei eta formazio erantsiari eskainitako denbora handituz doan hein berean: informatika, prestakuntza iraunkorra, "sasoian" egon edo argaltzeko kirola... azken urteetan.

Gizarteak aldaketak jasan dituen moduan (biztanleria gutxitzea, lan arloaren espezializazioa, sekularizazioa, indibidualismoa...), aisialdiak ere aldaketak izan ditu. Helduen mundua gero eta antolatuago dagoen moduan, haurren ere gero eta antolatuago dago.

Aldaketen norabidea zehaztu aurretik, heldu eta gaztetxoek aisialdian agertzen diren hiru ardatzen berri emango dugu.

- Aisialdia antolatu beharreko denbora bihurtu da.
- Aisialdia egin beharrik gabeko denbora izatetik, okupatu edota bete beharreko denbora izatera pasa da.
- Aisialdia ekintzarako denbora bihurtu da.

Aisialdiaren alorra zer izan den eta zer bihurtzen ari den ulertzeko aldaketa batzuk aipatu behar ditugu:

- **Kaletik talde antolatu**etara: gaur egun, ohikoagoa da talde antolatuetan aritzea, kale girotik at.
- **Auto-antolaketatik antolatutakora**: Inprobisazioak eta bat-bateko jarduerak gero eta leku gutxiago dute.
- **Ardura gabekoa izatetik okupazio denbora izatera. Denbora ematetik denbora okupatzera**: lehen, antolatutako aisialdiko ekimenek denbora "eman" egiten zuten, gaur egun, berriz, denbora "hartu" egiten dute, okupatu eta bete, alegia.
- **Sortzaile izatetik, sortutakoaren hartzaile izatera**: dagoeneko sortuta eta antolatuta dauden zereginen hartzaile gara.
- **Musu-truk egindako lanetik, ordaindutako lanera**: lehen, aisialdiko taldeetako lan taldea militantziaz aritzen zen askotan, eta lan egiteko gogoak zen beraien lan eskergaren oinarri; taldearekin sendo konprometitutako pertsonak izanik, luze aritzen ziren aisialdiko taldean lanean. Gaur egungo lan taldeak ogibidez edo lanbidez dihardutenak dira.

Mendizaleen taldeek, aitzitik, tradizionalagoak izanik, neurri handi batean oraindik gordetzen dute lehengo aisiaren zenbait ezaugarri eta osaera: koadrilak eta bikoteak biltzen dira, sarritan seme-alabekin, bilgune soziala (taberna, egoitza, liburutegia, materiala...) izaten dute, lan boluntarioa egiten da, etxetik eta toki formaletatik kanpoko ekintzak, asteburuko egonaldiak eta parrandak, afariak...

Ume eta gazteei ere aukera emango die dantzatik, baletetik, ingelesa ikasteko akademiatik, bideokontsolatik eta abarretik urrunduz ondo pasatzeko espazio informalago, komunitarioago bat, autonomoago bat aurkitzeko.

Ez daukat guztiz argi hori guztia abantaila hutsa den edo hein batean eragozpena ere ez ote den. Nolanahi ere, badirudi mendizaleen taldeak gaur egun aisia-talde asko baino hurbilago daudela gizatalde naturaletatik. Oso interesgarria da hori azpimarratu ditugun lehentasunak gogoan, zeren, beraz, hurbilago baitaude oinarrizkoak eta informalak diren beste elkarte mota ezagunetatik, hala nola familiarik, auzotik, lagunartetik...

Hortik argi ikusten da oso interesgarriak gerta daitezkeela transmisioan arazoak dituen hizkuntza baten normalizazioan, bereziki, metropoli batean minoria denean.

Beste ikuspegi batetik, ordea, jakina denez, bere izaera informalagoak eta pribatuagoak zailtasunak jartzen ditu normalizazio-ekintzen bidean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) berak ohartarazten duenez.

EBPNak aisialdiak gero eta garrantzia handiagoa duela azpimarratzen du eta, beraz, baita hizkuntza-normalizazioaren arloan ere. Aisiaren barruan, baina fisionomia propio batekin, kirolak ere toki handia hartzen du gure gizartean. Kirola, bestalde, oso atsegina denez, hizkuntza erabiltzeko ere atsegina eta eroso da.

Dena dela, eremu hori ez da erraza, batetik, zaila delako lagunarteko harremanetan eragitea, bestetik, arlo horietan ez baita orain arte hizkuntza-irizpiderik egon. Horretaz gainera azpimarratu behar da, EBPNan bertan antzematen denez, arlo horretako hizkuntza-ekimen gehien-gehienak haur eta gazteen mundura begira daude.

Izan ere, EBPNak aisiaren eta kirolaren arloan batez ere ikastetxe eta udal-kiroldegiak ditu gogoan, nahiz eta kirol-federazioei dagokienez plangintza baten beharra aipatu.

Jakina, Mendizaleen Federazioan plangintza balego, neurri batean erraztuko lituzke zeinahi mendizale-taldetako normalizazio-planak.

Nolanahi ere den, metropoli batean sakabanatuta dauden hiztunak modu atsegin eta eroso batez elkarrengana biltzeko aukera ona dirudite aisia-kirol talde horiek, apaltasunez baina sendo, horrela berrituz eta hedatuz Kafe Antzokia eta ildo bereko beste ekimen batzuk ere.

## II. PROIEKTUAREN IZAERA ETA EREDUA

Hasieratik esan dugun bezala, kirolaren arloko aisia-talde baten proiektua egitea da lan honen xedea. Proiektu honetan saiatuko naiz argitzen zein izan daitezkeen eredia, metodologia, antolaketa, helburuak eta lan-esparruak Bilboko mendizale-talde batean hizkuntza-normalizazioko prozesua burutzeko. Hortaz, ez da normalizazio-plana izango, baina geroan plan bihur liteke proiektua taldeari noizbait aurkeztu eta gauzatuko balitz. Momentuz, prozesuaren izaera, mamia eta norabideak proposatzera mutuko da jardun hau.

Deustuko Menditarrak mendizale-taldea da proiektuaren erreferentzia. Aurreko atalean deskribatu dut, oro har, zein den testuinguru soziolinguistikoa eta taldearen izaera, bai eta nolako garrantzia izan dezakeen Bilbon euskeraren nolabaiteko normalizazio-prozesu batean eragile izateko. Atal honen hasieran esandako zerbait azpimarratzera mugatuko naiz oraingoan: auzoei bagagozkie, Deustua izan daiteke abiabururik interesgarrienetarikoa bat; talde mota kontuan hartuta ere, oso onuragarria izan daiteke Menditarrak bezalako talde bat, aisia-taldea izateaz gainera, izaera naturaleko gizataldeen motatik hurbil dagoelako, arautu-formalizatutako jarduerak oraindik ez oso azpiratua.

### 1. ERAGILETZA

Beraz, Menditarrak aukera eman ahal die euskaldunei elkarrekin egoteko, aisian jarduteko eta, agian, baita hizkuntza-transmisioan lagundu ere.

Zein izan daiteke mendizale-talde honen hizkuntza-normalizazioaren lehengaia eta motorra? Deustuan, Bilbo osoko egoera gogoan, erlatiboki, euskaldun "asko" bizi direla, euskaldunen dentsitatea are nabarmenagoa da taldean, batez ere aktiboak diren bazkideen artean. Gainera, euskaldun horietatik batzuk jarrera aktiboa ("proaktiboa"?) dute euskeraren normalizazioan, ez horretan militanteak direlako, baina bai kontzientzia eta jarrera positiboa daukatelako.

Ziur aski, pertsona aktibo horietatik bat baino gehiago taldeko zuzendaritzan ere dago, eta beste batzuk ohiko partaideak dira zuzendaritzatik bultzatutako ekintzetan. Ondoan, euskerarekiko

jarrera positiboa daukaten beste bazkide batzuk daude, nahiz eta hain aktiboak ez izan. Eta jakina, erdaldun asko ere bai, gehienak gutxi-asko euskera pixka bat dakitenak, normalean, ez komunikatzeko beste eta, ziur aski, euskaldun bihurtzeko asmorik ez daukatenak, nahiz eta euskerari, ikurra den neurrian, ondo begiratu. Erdaldun petoak ere ez dira falta, agian, euskerarekiko indiferentzian instalatuak.

Hortaz, badirudi lidergo bat antolatzeke aukera egon daitekeela, eta eginbehar nagusien artean dagoela eragileak izan daitezkeen bazkideak identifikatzea eta aukerak emanez kontzentratzea eta proiektuan ahal den neurrian inplikatzeko.

Nolanahi ere den, oso presente izan behar ditugu taldearen izaerari lotutako baldintza batzuk:

- Taldearen xedea ez da euskeraren normalizazioa egitea, pertsonak zaletasun baten inguruan biltzea baino, eta, horrela, bizitzaz gozatzea, balore batzuk dituztela, hala nola elkarbizitza, elkartasuna eta adiskidetasuna.

Beraz, taldearen "misio" horretan aurkitu behar du bere tokia euskeraren erabilerak eta, orobat, taldearen dinamika natural eta arruntean, ezin baita bihurtu EHE, Behatokia edo antzeko elkarte bat.

Hala ere, esan daiteke hizkuntza-normalizazioan ez duela inolako erantzukizunik? Ez dirudi gaur egun onartzen dela enpresak baduela nolabaiteko erantzukizuna bere inguruarekin eta oro har gizartearekin. Zergatik ez, beraz, euskeraren normalizazioarekin?<sup>10</sup>

- Normalizazioaren lidergoa izan dezaketen bazkideak ere, aparteko ardura bat hartzen badute ere, ez dira hizkuntza-normalizazioko teknikariak ez eta militanteak ere. Beraz, normalizazio-prozesua ezin da konplexua eta zama handia izan, ohiko talde-ardura edo jardueraren zabalkunde egoki bat baizik.

---

<sup>10</sup> Hauxe da J. Inazio Markok egindako oharra, eta ados nago dioenarekin: "Gaur egun onartzen da fabrika baten xedea ez dela ekologia sustatzea, baina, aldi berean denok asumitzen dugu enpresa horrek baduela gizartearekiko eta ingurunearekiko erantzukizuna. Generoaren gaiarekin ere zabaltzen ari da ikuspuntu hori, alegia, enpresa edo erakunde batetan genero diskriminaziorik ezin dela onartu eta, aitzitik, ekintza positiboak bultzatu behar direla, eta horretan enpresak bere erantzukizuna baduela. Zergatik ez egin taldean antzeko hausnarketa euskararekin? Taldeak ez al dago gizartean kokatuta? eta ez al du gizarte horrekiko eta bere kideekiko erantzukizun neurri bat?"

- Mendizale-talde baten antolamendua eta dinamika, berez, aisia-taldea izanik, txikia eta sinplea da. Zuzendaritzako kide batzuk daude kudeaketa- eta antolaketa-lan guztiak egiteko. Bazkide gutxi batzuen laguntza eta lankidetzat jasotzen dute unean-unean, modu informal batean. Gainerako bazkideak zerbitzu-hartzaileak dira, eta arazo ziklikoak izaten dira zuzendaritzako kide berriak aukeratzeko.
- Taldera, proportzioak proportzio, denetariko jendea etortzen da, baina azpitalde jakinak (“koadrilak” batzuetan) egoten dira, horiek ere oso desberdinak, adinez, ideiez, asmoez... Adinari dagokionez, batz bestekoa ez da baxua (45 urte?), nahiz eta Deustuko Menditarrak taldean gazte-talde nabarmen samar bat ere badagoen. Horiek horrela, esan daiteke ohituretan, iritzietan, baloretan... nahikoa finkatutako jendeak osatzen duela taldea, alegia, ez oso jende malgua.

Horiek horrela, ohikoa denez, normalizazio-prozesu baten lidergoa eta eragiletza ondo antolatzeko, erronka nagusia dinamika hori elkartearen berezko balioetan, jardueran, antolamenduan, erritmoetan sartzea da, ahalmenak mugatuak direla jakinda eta bazkideek nahi dutena eta ahal dutena ondo orekatuz.

## **2. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAREN XEDEA**

Proiektu honetan hizkuntza-egoera eraldatzea proposatu nahi dugu, baina ez Menditarrak talde euskaldun bat izan dadin, baizik eta taldean euskeraren erabilera maila formalean eta informalean bideragarria izateko eta, ahal den neurrian, sustatzeko, euskaldunek taldearen jardueretan aukera izan dezaten euskeraz ibiltzeko.

Ideal bezala, esan genezake bazkide guztiek eskubide linguistikoak errespetatzea dela helmuga, baina badakigu eskubide horien errespetua, gainerakoen antzera, erlatiboa dela, eta zer esanik ez egoera diglosiko orokor batean, alegia, egoera normal batean. Beraz, taldean jarduera elebidun erreal bat lortzea da xedea, barruan gera daitezkeen erabilera diglosikoak errespetatuz eta, neurri batean, positibotzat joz.

Elebitasun eta erabilera diglosikoak norainokoak izango diren, taldeak berak esango digu, horretan, helburu estrategikoak beti konpartituz, jarrera ireki baten alde egiten baitut. Guztiarekin ere, ez zait abiaburu egokia iruditzen antzeman ezinezko helmugak jartzea, nola baita Bilbon, gizarte diglosiko batean, minoria linguistiko bat

elebakartasunerantz begira jartzea, ez eta aldaketaren objektu-subjektu izan behar dutenei norberak bere xedeak ezartzea ere.

Menditarrak ez da egokia horretarako, eta horrekin ez dut esan nahi proiektu honen bidea Bilboko euskaldunek behar dutena denik beren arazoak konpontzeko. Ziur aski, Bilboko euskaldunek bide desberdinak behar dituzte, eta hau egokia dateke Menditarrak taldekoentzat. Proiektu honen amaieran Bilboko euskaldunen arazo orokorrari begiratuko diot berriro ere.

### **3. APLIKAZIO-ESPARRUA**

Normalizazio-plangintza organizazio baten mailakoa izan behar da nagusiki, printzipioz, alde eta alderdi batere baztertzen ez duena eta dena dinamika anizkun baina integratu batean. Jakina, neurri batean, pertsonen artean ere izango du eragina, baina ez da hori ardatza.

Ildo horretatik komeni da objektu-subjektua ondo identifikatuta edukitzea. Izan ere, proiektuaren objektua taldea da, talde osoa, baina ez koadrilak: hau ez da koadrilategi bat izango, eta asmoa ez da, hasiera batean behintzat, koadrilen munduan eskua sartzea. Geroak esango du, bazkideen ekimenetan oinarrituta, noizbait koadrilak ere normalizazio-unitatetzat jo daitezkeen.<sup>11</sup>

### **4. DIMENTSIOA**

Apaltasunez eta partzialki bada ere, elkarte baten hizkuntza-egoera eraldatu behar luke plangintzak, eraldatu eta aldaketari eutsi, zailena ez baita zerbait aldatzea, sarritan esfortzu handiz egin daitekeena, aldaketa hori normal bihurtzea baizik, hau da, errealitate berri bat izatea, hasierako puntura itzuli gabe. Beraz, urratsak, zeinahi izanik ere, irmoak izan behar dira, berez irauteko modukoak, bultzatu zituztenak taldean dauden bitartean bahintzat.

Hortaz, plangintza estrategiko batez ari gara, 5-7 urtekoa. Plangintzak plan baten itxura hartu behar luke:

- norabide handiekin,
- lehentasun orokor batzuekin,
- ekintzarako estrategiekin.

---

<sup>11</sup> EGIZABAL, Diego, (2006).

Planak programak edukiko lituzke lehenetasun bakoitzeko, eta ardatz bakoitzaren barruak behar beste proiektu ekintzak zehazteko.

## **5. HARTZAILEAK**

Hartzaileak Menditarrak taldeko bazkideak izango dira, baina neurri batean, baita Menditarrak taldeak ematen dituen zerbitzu batzuez baliatzen diren bazkide ez diren batzuk ere. Edonola ere, bazkideak eragile izan beharko dira, batzuk bete-betean eta beste batzuk nahi duten neurrian. Lidergoak, berriz, xedetzat izan behar du ahalik eta bazkide gehien inplikatzeari plangintzan, bazkideak inplikatzeko diren unetik helburuak betetzen hasten da eta.

Objektua, beraz, subjektua izan behar da, horixe delako benetako eraldaketa baten giltza. Plangintzan jardutea errealitatean aldatzea da. Hori horrela izanik, helburuak, metodoak, ekintzak... bazkideen artean konpartituak izan beharko dira, bazkide aktiboen artean behinik behin.

## **6. PLANGINTZAREN EREDUA**

Aurreko guztiaren ondoren, esan gabe doa eredu estrategikoa dela plangintzako proposatzen dudana, hiru ezaugarri jakinok dituen:

- parte hartzailea,
- dinamikoa,
- elastikoa.

Aukerak, mehatxuak, erronkak partaidetzaz identifikatu beharko dira, eta horrelaxe finkatu norabidea. Dinamikoa eta elastikoa izan behar denez, plangintzako edozein atal berrikusi daiteke edozein unetan eta, berez, etengabe berrikusi behar da, inplizituki, erabaki bakoitzean.



Horrek guztiak garamatza plangintza estrategikoaren ereduko alderdi nagusi batzuk oso gogoan hartzera:<sup>12</sup>

- ERALDAKETA bat sustatu nahi da eta, horrela, elementu sustatzaileak eta mugatzaileak (edo aurkakoak) egongo dira. Erresistentziak egongo dira, noski, pertsonalitatearekin, gizarte-sistemarekin, aldaketa egikaritzeko moduarekin lotuak.<sup>13</sup>
- PERSPEKTIBA SISTEMIKOA: sistema eta azpi-sistema desberdinek eragiten dute aldi berean, alde eta kontra; faktore aleatorioak daude.
- PERTSONAK SUBJEKTUA: Plangintza prestatzea gauzatzen hastea da, eta parte hartze iraunkorra behar da.

Horregatik, argi izan behar da zein diren plangintzaren aldi fase bakoitzean kontuan hartu beharreko aldagai nagusiak:

- Hasieran, eragiletzaren boterea eta lidergoaren ahalmena.
- Prozesuan zehar, ekipo-lana, prestakuntza, lidergoa, partaideen sentimenduak.
- Amaieran, kontsolidazioaren aldian, aldaketak ondo txertatu geratu behar direnean, egiturak, politika-prozedurak, kultura.

Lerro horietatik ondorio argi batzuk atera ditzakegu:

- Bazkideek erabakiko dute une guztietan zer nahi duten eta noraino helduko diren, eta nolako esfortzuak eginez. Guztia alda daiteke eta edozein unetan.
- Sentsibiltate, iritzi eta ikuspegi guztiek dute tokia plangintzan, eta partaidetza-maila guztiak dira onartzeko modukoak.
- Informazio-, erabakitze- eta partaidetza-bide guztiak irekita egon behar dute beti, eta dinamika eta antolamendu egoki bat jarri behar da bide horiek etengabe funtzionatzeko.

---

<sup>12</sup> Ondoren datorrena J.I. Markosen testuan (2006) dago oinarrituta, II. Atal honetako kontzeptu nagusi gehienak bezala.

<sup>13</sup> MARKOS, J.Inazio (2006), 21-22 orr.

- Progresioa, norengan oinarritua, noiz bultzatua eta gertatua eta nola, egoerak, aukera desberdinek, bazkideen interesek, lehentasunek eta gogoak erabakiko dute.

Etorkizuna irekita dago, zentzu guztian eta alor guztietan.

## 7. PLANGINTZAREN METODOA

Gure plangintza, erlatiboki, gizarte-kultur animazioaren munduan kokatzen da. Beraz, fokalizazio partikularragoa izango du, orokorra baino areago, nahiz eta gizartean ere, oro har, ondorioak izan. Izan ere, aplikazioa gizartearen esparruan izango da. Hortik argi ondorioztatzen da gehien bat endoplangintza bat izango dela, alegia, elkarrearen garapenean zentratuagoa, baina nolabaiteko eragina izan dezakeena garapen komunitarioan.

Plangintza ororen egitura logiko-formalari jarraitu beharko zaio, urrats teoriko (ez kronologiko eta independente) hauek dituela:

- Diagnostikoa
- Planifikazioa
- Egikaritzea
- Ebaluatzea

Amaitzeko, J.I.Markoren proposamena orientabide egokia iruditzen zait plangintzarako, haren atal nagusiak eta eman dien zentzu dinamikoan eta ez sekuentzialean hartuta:

- Abiaturaren eta bisioaren lotura, alegia, hasieraren eta amaieraren arteko dialektika.
- Etengabeko jarraipen-ebaluaketa dinamika eta hausnarketa estrategiko partitua.
- Urrats nagusiak, ez sekuentzialak:
  - Abiaturua (jarrera proaktiboa)-Bisioa
  - Erabakia (behin baino gehiagotan errepikatua)
  - Lidergoa (indarrak aktibatuz eta indarrek aktibatua)
  - Hausnarketa estrategikoa partitua
  - Lan-ildo eta lehentasun estrategikoen aukeraketa

- Lanerako antolaketa eta metodologiaren zehaztapena
- Jarraipenerako adierazle sistema zehaztea
- Despliegea, organizatibo eta tenporala aktibitate gune desberdinetan
- Bisioa eta etorkizunaren irudikapena

# III. PLANGINTZAREN URRATSAK

## 1. ABIAPUNTUA ETA BISIOA

Plangintza taldean gauzatzeko posibilitatea eta proposamena bazkideei helarazi behar zaie. Horrek lehenengo eta behin hasiera batean lidergoa bere gain hartuko duen batzorde eragile bat osatzea eskatzen du. Batzorde eragileak, jarrera proaktiboa izan behar du, baina horretaz gainera prozesuaren gaineko bisioa ere eduki behar du, proposamenarekin batera bisio hori helarazi behar dielako bazkideei.

Ekimena zuzendaritzatik kanpo sortzen bada ere, hasierako lidergoa zuzendaritzan kokatu behar da, zuzendaritzatik bideratu behar baita plangintza abiarazteko erabakia ("Erabakia") hartzera heltzeko lehenengo komunikazioa. Nahikoa da Erabakiaren aurreko aldi honetan hiru lagunez osatutako batzorde eragilea, baina horietatik bat zuzendaritzako kidea den heinean. Batzorde eragilea, ahal izanez gero, zuzendaritzaren izenean zuzenduko zaie bazkideei, ekimena nondik datorren ezkutatu gabe.

Horiek horrela, hona hemen aldi honetako pauso nagusiak:

- **BATZORDE ERAGILEA OSATZEA:** Ekimena izan duten bazkideek zuzendaritzari aurkeztuko diete asmoa. Onartuz gero, zuzendaritzako kide batek batzorde eragilean parte hartuko du eta zuzendaritzak bultzatutako proiektua dela ulertuko da.

Asmoaren barruan, eredu eta metodologiaren alderdi nagusiak ere aurkeztuko zaizkio.

- **BISIOA MAMITZEA:** Zuzendaritzarekin batera elkarrekin argituko dugu plangintza zertarako den eta etorkizuna nola irudikatzen dugun:
  - Taldean euskeraren erabilera maila formalean eta informalean bideragarria izatea eta, ahal den neurrian, sustatzea, euskaldunek taldearen jardueretan aukera izan dezaten euskeraz ibiltzeko.
  - Etorkizunean bazkide guztien hizkuntza-eskubideak bermatuta ikusi nahi ditugu, taldeko jardueretan guztien nortasuna errespetatua izan dadin. Hori guztia

bat dator taldearen Misio eta baloreekin: elkarbizitza, elkartasuna eta adiskidetasuna.

- Taldeak bere Misioan eta baloreen artean du herri-identitatea zaintzea, elkartearen izenak berak erakusten duenez (“Deustuko Menditarrak”). Horregatik, taldeak euskeraren erabilera ere sustatu nahi du, herri honen hizkuntza propio eta identitate-ikurra denez gero.
- KOMUNIKAZIOA: Bisioa eta asmoaren ezaugarri nagusiak ezagutu behar dituzte bazkideek, informazioa jaso ondoren hausnartu eta denon artean erabakia hartzeko. Asmoa talde osora eraman behar da.

Komunikazio zuzendaritzak berak bideratuko du talde-eragilearen laguntzarekin. Horretarako, adibide gisa, baliabide hauek izan ditzake:

- Eskutitza bat bidaliko zaie bazkideei.
- Idazki bat banatuko da taldearen mendiko irteeretan, hiru hilabetean txango guztietan errepikatuz.
- Informazio-kartel handia jarriko da egoitzan.
- Bi informazio-bileratara deituko da.
- Ordu-tegi bat ezagutaraziko da gai honetaz hitz egin nahi duenak talde-eragilearekin egon ahal izateko.

Eskutitzarekin eta mendiko irteerako idazkiarekin orri bat banatuko da bazkideek iritzia emateko edo jarrera erakusteko. Suplea izango da, lauzpabost baieztapenekin, 1etik 5erako eskala batean adostasuna edo adostasun-eza erakusteko eta azkenean norberak nahi duena idazteko aukerarekin. Anonimoa izango da, eta irteeran bertan bilduko da, edo egoitzan bertan.

Hizkuntza-plangintza dela-eta, lehenengo unetik iradokizun-postontzi berezi bat jarriko da egoitzan.

Modu horretan aukera egongo da feedback izateko taldearen Erabakia hartu baino lehen.

## 2. ERABAKIA

Plangintza abiarazteko erabakia hartzeko ordua heldu da. Lehenengo erabaki nagusia izango da, plangintzaren lehentasunak, ildoak eta eremuak aztertu ondoren berriro ere bigarren erabaki nagusi bat hartu beharko da eta. Horretarako batzar batera deituko zaie bazkideei, hausnarketa estrategikoa elkarrekin egin, bisioa partitu eta hurrengo urratsen nondik norako nagusia erabaki beharrez.<sup>14</sup>

Ez dakigu gutxi edo asko etorriko diren, baina, gutxi badira ere, aurrera egingo dugu plangintzarekin, agerian dauzkagun mugak eta ahuleziak gogotik kendu gabe. Nolanahi ere, plangintzaren dinamika sortzea da garrantzitsuena, ondoren etorriko baitira, dinamikak interesa piztuz gero, partaidetza handiagoak eta, agian, baita erresistentziak ere.

Gutxi badira bilerara bertaratuak, horiexek izan litezke plangintzarako lehenengo antolaketarako kideak; asko badira, interesik handiena duten boluntarioak nolabait aukeratzen jakin behar du batzorde eragileak.

Hona hemen batzarrean eztabaidatu eta erabaki beharrekoak:

- **BISIOA:** lehen esan bezala, berdintasunezko hizkuntza-tratua lortzea eta euskeraren erabilera sustatzea, hori guztia taldearen Misioarekin bat.
- **PLANGINTZAREN EREDUA:** estrategikoa, parte hartzailea, dinamikoa, irekia, malgua.
- **PLANGINTZAREN HURRENGO URRATSAK:** diagnostikoa, lehentasun estrategikoak, lan-ildoak eta eremuak zehaztea. Hori guztia aztertu ondoren berriro erabakitzea (bigarren erabaki nagusia).
- **ANTOLAKETA:** hurrengo urratsak egiteko. Hau izan liteke proposamena:
  - Batzorde eragileak irautea.
  - Lauzpabost laguneko lan-talde bat osatzea interes gehien erakusten duten bazkideekin, kide bat batzorde eragilekoa izanik.

---

<sup>14</sup> j: Inazio Markori jarraiki, batzarren arlo honetan, tartean beharko litzateke espazio bat ireki (eta nola kudeatu aurreikusi) jendearen beldurrak, emozioak, sentimenduak, ..... azalarazteko eta horien gainean adostasun positiboak lantzeko. Une honetan ez daukat argi nola txertatu eta hausnarketa egiteko uzten dut.

- Eztabaida talde bat osatzea prest dauden bazkideekin (sei-zortzi gehienez ere). Talde honetara ekarriko lirateke agertzen diren arazoak, diagnostikoaren lerro nagusiak, zedarritzen diren lehentasunak... bere iritzia eman dezan.<sup>15</sup>
- KOMUNIKAZIOA: Erabakiaren berri eman behar zaie bazkide guztiei, eta plangintza bultzatzeko asmoa baita Deustuko elkarte, talde, distrituko agintari eta interesatuak izan daitezkeen guztiei, baita Bilboko beste mendizale-talde eta Federazioari ere. Batzorde eragilea arduratuko da lantegi horretaz.

Talde hauek nolabaiteko arautegia eduki behar lukete, puntu hauek dituztela:

- Irekiak dira: edozein bazkide hurbildu daiteke.
- Ahal izanez gero, bilerak egun, ordu eta toki jakinean egingo dira, eta datuok egoitzan jarrita egongo dira jende aurrean.
- Batzorde eragileko kideak euskaldunak izango dira.
- Ez da beharrezkoa lan-taldeko kideak euskaldunak izatea, baina komeni.
- Eztabaida taldeko kideen erdiak ez dira euskaldunak izango.

Batzar honetan argi geratu behar da zein plangintza-eredu aukeratu den, baina horretaz gainera mundu guztiak ikusi behar du plangintza eta gerora adostuko diren hizkuntza-erabilerarako irizpideak elkartearen funtzionamenduarekin bat egiten dutela, ez direla aparteko zerbait, alegia: euskera funtzionamendu arruntaren zehar-lerro bat izan behar da.

Bestalde, interesgarria da denek ikustea erabakia hartuta eta hurrengo pausoak abiatuta ere taldea plangintza bera gauzatzen hasita dagoela, eta nahi dugun punturaino eramango dutela.

### **3. PLANGINTZAREN LEHENTASUNAK ZEHAZTEA**

Atal honetan, gai bi landuko ditugu, batetik, gure abiapuntua ahalik eta ondoen ezagutzeko diagnostikoa, bestetik, horren ondorioz, plangintzaren lehentasunak. Aurretik esandako ideia bi azpimarratu nahi ditut berriro ere:

---

– <sup>15</sup> Teknika honi buruz informazio handia dago MARTINEZ, Zesar eta beste batzuen (2006) testuan, 26-34. orri. Ikus Bibliografian

- Plangintzan, oro har, eta diagnostikoa nahiz lehentasunen zehaztea partikularki, sinpleak izan behar dira, lantzeko eta kudeatzeko errazak.
- Orain arte taldeko kideekin egindako urratsak badira, neurri batean, plangintza eta, bereziki, diagnostikoa egiteko bidea. Izan ere, bazkideen orain arteko erantzuna nolakoa, horrelakoa izango da abiapuntua.

### 3.1. Diagnostikoa

Merezi du Lore Iriondok, Olatz Altunak eta Pablo Suberbiolak diagnostikorako prozeduraren gainean aipatzen dituzten bost ezaugarriak:

- Osotasuna: behar dugun informazio guztia biltzea.
- Metodoaren (eta tresnen) fidagarritasuna.
- Eragingarritasuna.
- Zehaztasuna.
- Sinpletasuna eta erosotasuna.<sup>16</sup>

Bost printzipio horien artean gure premien arabera nolabaiteko oreka bilatu behar genuke, gure kasuan, sinpletasunak, erosotasunak eta eragingarritasunak hartu behar baitute pisurik handiena. Aldiz, metodoaren aldetik, kontuan hartuta nolako unibertso txiki eta itxian mugitzen garen, molda gaitzke begi bistako ezagutzarekin, zehatza izan ez arren, eta intuizioarekin, prospekzio- eta ikerketa-teknika sofistikatuak alde batera utzita.

Nolanahi ere, gogoeta egin behar dugu gure abiapuntuan ditugun ahulezia eta indargune nagusiei buruz. Nire irudiko, hauek dira hausnarketa horren gaiak:

- Taldearen orain arteko historia normalizazioaz den bezainbatean.
- Inguruaren egoera soziolinguistikoa.
- Taldearen egoera soziolinguistikoa.
- Baliabideak eta eskumenak.

---

<sup>16</sup>ERRIONDO, Lore eta beste batzuk (2006).



### 3.1.1. Ahuleziak

- Taldean orain arte ez da inolako normalizazio-prozesurik egin, ez behintzat espresuki eta modu kontziente eta planifikatu batean. Bestalde, nik dakidan neurrian, ez da plangintzarik egon antzeko mendizale-talde batean. Beraz, aurrekaririk gabe hasi behar da.
- Bilbon, eta Deustuan, inguru erdaldun bat da (gogoratu lan honen hasierako datuak); herritarren portzentaje txiki batek bakarrik daki euskeraz eta erabilera nabarmenki eskasagoa da, batez ere espazio publikoetan, erabilera sinboliko batzuk gorabehera. Beraz, euskeraren erabilera publikoa bitxia da. Herritarrak, elkarteak, erakunde publikoak ez daude ohituta inondik ere besteekin euskeraz jarduten edo hizkuntza-eskakizunei erantzuten.
- Taldean ere euskeraren erabilera eskasa da, nahiz eta Bilbon eta Deustuan baino nabarmenki handiagoa. Ez da bitxia, baina bai ezagutza baino askoz txikiagoa eta harreman pertsonaletara mugatua. Taldearen espazio publikoetan esporadikoa da, batez ere ahozkoa denean.
- Taldeak, berez, ez dauka euskera antolatzeke edo sustatzeko giza baliabide berezirik, ez eta prestakuntzarik ere. Orobat, diruari bagagozkio; gainera, mendizale-taldeen diru-funtsak txikiak izaten dira.

Baliabide informatiko bereziturik ere ez du, ez hizkuntza-plangintza bat abian jartzeko eta kudeatzeko ez eta horretan laguntzeko ere. Agian pentsa liteke Indexpla tresna lagungarri izan litekeela horretarako, baino uste dut urrundu egiten dela gure eredu, premia eta egoeratik.

Jakina, taldeak ez du hizkuntza-plangintzarako eskumenik, eta badutenen mendean dago alor horretan. Bestalde, badirudi eskumenak dituztenen lehentasunak, hala nola Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarenak eta Bilboko Udalarenak, beste bide batetik doazela, aisiari bagagozkio, ume eta gazteei begira.

### 3.1.2. Indarguneak

- Deustuan Bilboko auzo gehienetan baino indar eta harrera hobez egin dira euskeraren aldeko kanpainak, azken hogeita hamar urteetan, ziklikoki gauzatzen direnak. Beraz, auzoan bada nolabaiteko eskarmentua eta sentikortasuna, eta eskarmentu horrek balio dezake antzemateko esfortzuak gehiago bideratu behar direla erabileran urrats apal baina iraunkorrak egitera ezen ez kanpaina entzutetsu eta handinahiak burutzera baino. Gainera,

taldeko kide batzuek parte aktiboa hartu izan dute kanpainen tradizio luze samar horretan.

Suposatu dezagun, proiektu honekin hasi garenetik orain arte emandako pausoetan erantzun on samarra jaso dugula bazkideengandik eta, beraz, badagoela taldean erabileraren arloan zerbait erreala eta positiboa egiteko gogoia: aldaketaren aldeko jarrera dagoela alegia.

- Esan bezala, Deustuak badu tradizio handi samar bat euskeraren aldeko mugimendu zikliko horietan. Bestalde, datu soziolinguistikoek eta politikoek erakusten dutenez, auzo honetan gehiago erabiltzen da euskera beste auzoetan baino, eta sentikortasun handiagoa dago euskeraren egoerarekiko. Beraz, apalak badira ere, baldintza hobek daude ondo neurtuko aldaketak bultzatzeko.
- Argi dago taldeko bazkide aktiboen erdiek euskera "ondo" jarduteko moduan badakitela, eta beste laurden batek zerbait dakitela. Laurden bat edo izango da euskeraz ezer ere ez edo ia ezer ez dakitenak, eta gehien-gehienek orain arte behintzat ez dute jarrera txarrik erakutsi. Jakina, horrek ez gaitu eraman behar suposatzen beste euskeraren erabilera deseroso egingo ez zaienik ez eta euskera "ondo" dakitenak gaztelaniaz erosoago, errazago eta komunikatzeko gaitasun handiagoz ez dabilzanik.

Izan ere, "ondo" esan dut, uste baitut euskeraz egunero eta bere bizitzaren arlo garrantzitsuetan jarduten ez dutenek nekez erabil dezaketela euskera ondo eta, beraz, erosotasunez, modu jarraituan, nahiz eta une batzuetan eta egoera iragankor eta ohiko batzuetan ondo moldatu. Guztiarekin ere, bada gune bat euskera etxean eta lantokian (ikastetxean) erabiltzen duena.

- Bazkiderik aktiboenen arteko batzuek euskera maila on samarra dute euskera idatzian eta, beraz, ez dute asko behar testuak euskeraz modu egoki batean idazteko (non eta ez dieten ekimen hori errotik erauzten, lotsagarri utziz, ustezko zuzentasunaren komisarioren batek, euskeraren profesionalek eta euskaltasunaren patrimonialistek).

Ez dut interesgarri ikusten bazkide guztien artean inkesta moduko bat egitea, galdetzeko ea zer euskera-maila daukaten eta zer jarrera daukaten, uste baitut ez direla batere fidagarriak, baldintza ideologiko, kultural eta politiko gehiegik eragiten baitute eta ezagutzaren maila subjektiboegia gertatzen baita. Hortaz, inkestaren onurak ez du esfortzua berdintzen, eta geuk ez daukagu inkesta baten emaitzekin marketing egiteko premiarik. Bazkiderik aktiboen

gaineko informazioa zuzenean eta begi bistan daukagu, eta ez dago galdetu beharrik. Behar dugun informazio osagarria eztabaida-taldearen bidez lortuko dugu.

Begirada orokor bat botaz gero, ezagun da badirela baldintzak normalizazioaren bidean urratsak egiteko, presarik gabe, apaltasunez eta, helburu nahiz metodoei dagokienez, mentalitate ireki batez jarduten bada; era berean, argi dago inguru latz batean gabiltzala, arriskuz betea eta, horrela, dena hutsaren hurrengo izan litekeela plangintzarekin hasi eta gutxira edo urte pare batera. Bestalde, ezin ukatu plangintzak nolabaiteko esfortzua eskatuko diela bazkide guztiei eta, batzuei bereziki; beraz, militante-arimaren apur bat ere beharko dute plangintzaren aitzindariak.

Horiek horrela, funtsezkoa iruditzen zait plangintza, ahal den neurrian, gozamen baten antzera aurkeztea eta burutzea, ahaleginak eskatzen dituen aberaste gozo baten antzera: mendi batera igotzen den modura. Horretarako, plangintzaren bideak eta erronkak errazak izan behar dira, gehienek jarraitzeko modukoak, gehienek onartuak eta, ahal den neurrian, kudeatuak. Bazkideek (gehienek) nahi duten punturaino helduko da, nahi dituzten helburuak erabaki eta erdietsi.

Diagnostikoaren ondorioz ikusten bada gogo eta partaidetza eskasa dagoela, orduan horren arabera xedeak eta lehentasunak landuko ditugu, nahiz eta eragiletzatik taldea motibatzeari utzi ez. Plangintza gauzatzen ari den bitartean indarrek edo gogoak behera egiten badute, horren arabera egokitu beharko dira helburuak eta bideak.

### **3.2. Lehentasunak**

Aurreko guztia gidari, lehentasunen eskala bat proposatzen iruditzen zait egokiena, premiatasuna eta erraztasuna baloratuz eta konbinatuz: premiazkoenetik ondorio gutxiago duen arlora, errazenetik zailagora.

Erabilerari begira gabiltzanez, lehentasunak harreman-motetan oinarrituko ditugu, eta hiru ardatz kontuan hartura

- Taldearen barrukoak /kanpokoak.
- Kudeaketa-harremanak/ zerbitzu-harremanak
- Ahozko harremanak /harreman idatziak

Ardatz horiei beste bat gaineratu diegu, kontzeptuen arloan bada ere, harreman mota guztiak ager daitezen:

- Harreman sozialak / pertsonalak

Baina, nire irudiko, harreman pertsonalen eremua gure eskumenetik at dago, non eta dugun uste gabeko arrakasta bat lortzen aurreko mailadi guztietan. Atal bakar batean emango diegu nolabaiteko sarrera plangintza honetan: umeen mendiko jardueretan, gerora programen gainean aritzen garenean ikusiko dugun bezala, hor ere muga jakinak badaude ere. Baina umeen jardun-eremua hau bereziki zaintzeko eta bultzatzeko modukoa izanik, arreta bereziaz begiratu beharko zaio. Taldeko gurasoen ume gehienak euskaraz aritzen dira eskolan, eta gurasoak aldeko jarrera dute. Etorkizuneko ikuspegi luzea erabiliz, euskaraz garatzeko espazioak eskaintzen bazaizkie (hasieran eta bukaeran egin duzun hausnarketarekin lotuta) aukera gehiago izango da egoeraren bilakaera positiboak indartzeko, hurrengo belaunaldiei begira.<sup>17</sup>

Oro har, zerbitzu-harremanek lehentasuna izango dute kudeaketa-harremanen aldean, premia handiagoa baitute; barruko harremanek lehentasuna izango dute kanpokoen aldean, premia dela kausa.

Horiek guztiak horrela izanik, hona hemen lehentasun orokorren hurrenkera:

1. Taldearen barruko zerbitzu-harremanak.
2. Taldearen barruko kudeaketa-harremanak.
3. Taldearen kanpoko zerbitzu-harremanak.
4. Taldearen kanpoko kudeaketa-harremanak.

Lehentasun bakoitzari programa bat egokituko zaio plangintzan.

Bestalde, lehentasun orokor bakoitzaren barruan, hiru azpi-lehentasun egon daitezke:

1. Lehentasun maila altua.
2. Lehentasun maila ertaina.
3. Lehentasun maila baxua.

---

<sup>17</sup> J.Inazio Markoren ohar zentzuzko eta garrantzitsu bati narraio puntu honetan: "Zure puntu fuertenetako bat izan daiteke. Horietako gehienak euskaraz arituko dira eskolan, eta gurasoak aldeko jarrera izango dute. Etorkizuneko ikuspegi luzea erabiliz, euskaraz garatzeko espazioak eskaintzen bazaizkie (hasieran eta bukaeran egin duzun hausnarketarekin lotuta) aukera gehiago izango dugu egoeraren bilakaera positiboak indartzeko, hurrengo belaunaldiei begira. Nire ustez hor sar daiteke 'a tope!'. Gainera aipatu duzu gazte koadrila martxosoa duzuela, ezta?"

Lehentasun hauetatik kanpo dago plangintza bultzatzen parte aktiboagoa izango duten kide batzuen prestakuntza-premiei erantzutea, premia handikoa izan litekeena. Horretarako programa berezi bat diseinatu beharko da.

### 3.3. Kronograma

Gure ereduaren arabera, plangintza mendizale-taldeko bazkideak nolabait inplikatu diren unetik hasi da, ordutik normalizazioaren bidea jorratzen ari gara eta. Hori horrela izanik ere, helburuen inguruan egituratutako plangintza programen aplikazioarekin batera hasiko da. Plangintzaren guztizko iraupena 5-7 urtekoa izango da, baina, jakina, irekia denez, garapenak berak esango digu benetan noiz arte iraun behar duen.

Programarik garrantzitsuenek, hau da, lehentasunik handiena dutenek gehiago iraun dezakete, eta lehenago hasiko dira. Pausoka eta lortutako arrakasta txikien gainean etxea eraikitzen ibili nahi dugunez, programen garapenak nolabaiteko izaera sekuentziala izan dezake, baina hori ez da eragozpena izango programa desberdinetako jarduera batzuk aldi berean hasteko, aurreratzeko edo atzeratzeko. Berrito ere, plangintzaren garapenak berak esango digu aukerak zein diren.

Aurreikuspen huts bezala, hona hemen ustezko kronograma sekuentzial bat:

<b>PROGRAMA</b>	<b>IRAUPENA</b>	<b>URTEAK</b>
Barruko zerbitzu-harremanak	2-3 URTE	2006-2009
Barruko kudeaketa-harremanak	1-2 URTE	2010-2012
Kanpoko zerbitzu-harremanak	URTEBETE	2012-2013
Kanpoko kudeaketa-harremanak	URTEBETE	2012-2013

### 3.4. Komunikazioa

Diagnostikoa egin eta lehentasunak zehaztu bitartean baliabide hauek izango ditugu egiten ari garenaren berri bazkideei helarazteko eta haien partaidetza eragiteko eta jasotzeko:

- Eztabaida-taldea: gai eta proposamen guztien berri izango du eta bere iritzia eta jarrera emateko eskatuko zaio.
- "postontzi mugikorra": taldearen irteeretan eta egoitzan bertan orri bana banatuko diegu bazkideei egiten ari garen

lanaren lau ondorio edo proposamenekin; orri horietan ados dauden ala ez galdetuko zaie: ados/ez nago ados/ berdin dit markatzeko aukera izango dute. Era berean, nahi dutena iradokitzeko tokia egongo da. Erantzun anonimoak izango dira.

- Hamabost egunetik behin bilera informatibo bat egingo da egoitzan, ondorio eta proposamenen berri emateko eta bazkideek nahi dutena iradokitzeko.

### **3.5. Erabakia berritzea eta zabaltzea**

Ondoren, hasierako erabakia berritzeko edo aldatzeko aukera izan behar du taldeak. Horretarako, diagnostikoaren, lehentasunen eta kronograma hipotetiko baten berri izan behar dute bazkideek. Erabaki berritu horrek, jakina, eremu zabalago bat hartu beharko du orain.

Beraz, informazio guztiak jasotzeko, eztabaidatzeko eta plangintzaren alderdi nagusiak erabakitzeko batzar batera deituko zaie bazkideei.<sup>18</sup> Hona hemen gaien zerrenda:

- DIAGNOSTIKOA.
- LEHENTASUNAK.
- KRONOGRAMA.
- AURREKO ERABAKIA BERRITZEA: bisioa, plangintzaren ereduak, helburuak.
- ANTOLAKETA: printzipioz, orain artekoa
  - Batzorde eragilea:
    - Zuzendaritzako kide bat.
    - Bizpahiru kide.
  - Lan-taldea: lau-pabost lagun, bat batzorde eragilekoa izanik.
  - Eztabaida taldea bat osatzea prest dauden bazkideekin (sei-zortzi gehienez ere).
- LAN-ILDOAK ETA EREMUA:
  - Plangintza programetan eta proiektuetan egituratuko da. Printzipioz, alderdi sozialari eragingo dio, ez harreman pertsonalen alderdiari.
- KOMUNIKAZIOA: etengabea izango da, "postontzi mugikorraren" bidez, plangintzarako iradokizun-postontzi bereziaren bidez, noizean behin egingo diren bilera informatiboaren bidez, batzorde eta talde irekien bidez...

---

<sup>18</sup> Hau bazkideen bigarren batzarra da. Agian batzar gehiegi, eta komeni da jendea ez nekaraztea. Sinpletasunaren amoreagatik, pentsatu behar da batzar honen ordez beste aukeraren bat dagoen aurrera egiteko, behar bezalako komunikazioa ziurtaturik.

- PLANGINTZAREN HURRENGO URRATSAK: Programak eta proiektuak zehazten joatea; ebaluatzeke modua garatzea eta ebaluatzea.

Hasiera batean, behintzat, ez dut gastu berezirik aurreikusten, ez behintzat aipatzeko moduko muta duenik. Bestela gertatuko balitz, eztabaida-taldearekin aztertu eta ondoren talde osoak konponbidea bilatu beharko luke. Nolanahi ere den, egitasmo honen helburuetatik bat da plangintza ez izatea karga ekonomiko bat taldearentzat. Taldeak gauza berak egin behar lituzke baina beste modu batean.

Esan gabe doa, erabakia berritu eta zabaltzen den egunean, gaingiroki bada ere, gehiago esan behar dela programa eta proiektuei buruz, plangintzaren nondik norako orokor bat gogoan egon dadin, hurrengo atalean landuko dugunaren arabera.

Oraingoan ere, erabakiaren berri eman behar zaie bazkide guztiei, eta Deustuko elkarte, talde, Distrituko agintari eta interesatuak izan daitezkeen guztiei, baita Bilboko beste mendizale-talde eta Federazioari ere. Batzorde eragilea arduratuko da lantegi horretaz.

## **4. PROGRAMAK**

Programen abiaburua Erabakia hartutako eguna da. Beraz, hortik aurrera zenbatuko dira epeak. Demagun, 2006ko urriaren batean hartu dela erabaki hori.

### **4.1. PROGRAMA: TALDEAREN BARRUKO ZERBITZU-HARREMANAK**

**DESKRIPZIOA:** Programa honetan sartzen dira bazkideek taldetik hartzen dituzten zerbitzuak gauzatzeko jarduerak.

#### **HELBURU NAGUSIAK:**

- Informazio idatzi guztia bazkide bakoitzak aukeratutako lehentasuneko hizkuntzaren arabera ematea, euskeraz edo erderaz; eta ezin denean, gutxienez ele bietan.
- Ahozko informazioa, orokortasunez ematen denean, ele bietan ematea, euskeratik hasita.

**IRAUPENA:** 2-3 URTE



#### 4.1.1. PROIEKTUA: BAZKIDEEN HIZKUNTZA-LEHENTASUNAREN ERREGISTRATZEA

DESKRIPZIOA: Taldeak fitxategi bat dauka bazkideen datuekin. Fitxategi hori erabiltzen da bazkideen etxeetara informazioa bidaltzeko eta telefonotik deitzeko.

IRAUPENA: HIRU HILABETE ETA IRAUNKORRA BAZKIDE BERRIEI DAGOKIENEZ

LEHENTASUNA: 1

<b>JARDUERAK</b>			
<b>JARDUERA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Bazkideei informazioa jasotzeko euren lehentasuneko hizkuntza zein den galdetzea	Bazkideei etxera gutuna bidaliko zaie informazioa zein hizkuntzatan jaso nahi duten galdetuz. Bazkideek erantzuna postaz bidaliko dute, taldeko postontzian utzi, irteeretara ekarri. Orobat, irteeretara nahiz egoitzara datozen bazkide guztiei galdera hori egingo zaie.	2006KO abendutik	Zuzendaritza
Bazkide berriei euren lehentasuneko hizkuntza zein den galdetzea	Bazkide berrientzako fitxan hizkuntza-lehentasuna galdetuko da.	2006KO abendutik	Zuzendaritza
Taldearen estatutuetan hizkuntza-aukeraren eskubidea jasotzea	Taldearen urteko batzarrean proposatuko da estatutuetan bazkideen taldearen aldetik ahozko eta idatzizko informazioa euskeraz jasotzeko eskubidea dutela eta euskeraz baliatzea dutela taldeko harremanetan.	2006-2007	Zuzendaritza

#### 4.1.2. PROIEKTUA: HELDUEN MENDIKO IRTEERAK ETA IRTEERA SOZIALAK

DESKRIPZIOA: Taldearen funtsa dira irteerak, taldearen ardatza. Mota bi daude, mendiko irteerak, ohikoak direnak, eta irteera sozialak, alegia, zerbait ospatzeko direnak, edo besterik gabe, elkarrekin bazkaltzeko egiten direnak. Normalean, irteera sozial horiek mendiko ibilalditxo batez osatuta egoten dira. Irteera guztiek informazio idatziaz eta ahozko informazioaz lagunduta egoten dira. Idatziak, informazio-orri edo dosierren bidez ematen dira; ahozkoak, autobusean bertan ibilaldia hasi aurretik ematen dira, eta hotel nahiz aterpeetan egunetako irteerak direnean. Badira umeentzako irteera berezi batzuk ere, eta gurasoekin egiten dira.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 1

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Etxera hileko edo hil biko irteeren berri emateko bidaltzen den informazio-orria	Euskeraz edo erderaz emango da, bazkidearen lehentasuneko hizkuntzaren arabera. Aukera ezaguna ez bada, euskeraz bidaliko zaie.	Informazio-orri guztiak euskeraz eta erderaz idatziko dira, aldi berean eta koordinatuta, baina, ahal bada, pertsona desberdinek. Ondoren, orri desberdinetan inprimatuko dira testuak.	2007KO otsailetik	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Autobusean, irteera jakin baten gainean banatzen den informazio-orria edo, irteera luzeetan, informazio-dosierra.	Euskeraz edo erderaz emango da, bazkidearen lehentasuneko hizkuntzaren arabera. Aukera ezaguna ez bada, galdetu egingo zaie.	Informazio-orri guztiak euskeraz eta erderaz idatziko dira, aldi berean eta koordinatuta, baina, ahal bada, pertsona desberdinek. Ondoren, orri desberdinetan inprimatuko dira testuak.	2007KO otsailetik	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Autobuseko, aterpe edo hoteletako ahozko mezuak	Euskeraz eta erderaz ematea, euskerari lehentasuna emanda.	Euskeraz emango dira lehenengoz; ondoren erderaz. Ahal bada, pertsona desberdinek emango dituzte. Batzuetan, nahikoa izan liteke euskeraz esandakoaren laburpenarekin.	2007KO martxotik	Zuzendaritza & irteera antolatu duten pertsonak

#### 4.1.3. PROIEKTUA: UMEEN MENDIKO IRTEERAK

DESKRIPZIOA: Hilean behin umeentzako irteera bat antolatzen da. Gurasoekin batera egiten da, eta ez da autobusik erabiltzen. Gurasoak toki batean elkartzen dira eta umeak kotxez eramaten dituzte. Zuzendaritzako kide bat egoten da antolatzaile bezala. Egun osoko irteera izaten da, eta denek elkarrekin bazkaltzen dute, mendian normalean.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 1

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Etxera hileko edo hil biko irteeren berri emateko bidaltzen den informazio-orria	Euskeraz edo erderaz emango da, bazkidearen lehentasuneko hizkuntzaren arabera. Aukera ezaguna ez bada, euskeraz bidaliko zaie.	Informazio-orri guztiak euskeraz eta erderaz idatziko dira, aldi berean eta koordinatuta, baina, ahal bada, pertsona desberdinek. Ondoren, orri desberdinetan inprimatuko dira testuak.	2007KO otsailetik	Zuzendaritza& batzorde eragilea
Gurasoentzako ahozko mezuak	Euskeraz eta erderaz ematea, euskerari lehentasuna emanda.	Euskeraz emango dira lehenengoz; ondoren erderaz. Ahal bada, pertsona desberdinek emango dituzte. Batzuetan, nahikoa izan liteke euskeraz esandakoaren laburpenarekin.	2007KO maiatzetik	Zuzendaritza& irteera antolatu duten pertsonak
Umeentzako ahozko mezuak eta elkarrizketak	Euskeraz ematea.	Irteeraren arduradunek euskeraz emango dituzte mezuak eta horrela hitz egingo diete umei.	2007KO urritik	Zuzendaritza& irteera antolatu duten pertsonak, konpromisoa hartu duten gurasoak
Umeen arteko harremanak	Lehentasunez euskeraz izatea	Bilera bat egingo da umeen irteeretara etortzen diren gurasoekin, irteera horien lehentasuneko hizkuntza euskera dela erabakitzeko. Ondorioz, konpromisoa	2007KO azarotik	Konpromisoa hartu duten gurasoak& Zuzendaritza, irteera antolatu duten

		hartuko dute umeen arteko harremanak zaindu eta ahal den neurrian euskeraz izan daitezten. Irteera bakoitzean monitore moduko bat egongo da umeen jarduna zaintzeaz arduratuta. Nolanahi ere, umeak ez dira asko presionatu behar, ororen gainean, irteeraren aldia aisiaren aldia da eta.		pertsonak
Bilera umeekin	Lehentasunez euskeraz egitea	Bilera bat egingo da umeekin, azaldu nola egin nahi den eta beraiek ekin dezaketen ekarpena kontuan hartu, ez daitezten jasotzaile hutsak izan eta beren asmoak, lehentasunak, gogoak... adierazi ditzaten. Beraiekin kontaktu behar da. ,... eta gero ekin aurrera presionatu gabe.		
Gurasoen arteko harremanak	Euskaldunek euren artean euskeraz egitea	Irteeren lehentasuneko hizkuntza euskera dela erabakita, gurasoei gonbitea luzatuko zaie euskeraz ondo egiten dutenak euren artean horrela egiteko. Prest daudenekin mintzagramaren kontrol-teknika erabil daiteke.	2008KO otsailetik	Konpromisoa hartu duten gurasoak & Zuzendaritza, irteera antolatu duten pertsonak

#### 4.1.4. PROIEKTUA: EGOITZAKO IRAGARKI-TAULAK

DESKRIPZIOA: Taldearen egoitzan iragarki-taula bat dago eta, gainera, iragarki mota desberdinak ormetan ere jartzen dira. Horrela, egoitza ia osoa iragarki-taula handi bat da. Iragarki-taulan eta ormetan taldearen, Federazioaren eta beste mendizale-taldeen oharrak, iragarkiak, ekitaldiak jartzen dira.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 1

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Taldearen informazioa	Euskeraz eta erderaz, euskerari lehentasuna emanda.	Euskeraz eta erderaz emango da, orri desberdinetan eta euskerazko testua nabarmenduta. Pertsona desberdinek aldi berean eta elkarrekin idatziko dute informazio hori.	2008KO otsailetik	Zuzendaritza & batzorde eragilea

#### 4.1.5. PROIEKTUA: TALDEAREN URTEKO EKITALDIEN GAINEKO EGUTEGIA

DESKRIPZIOA: Taldeak urtero liburuxka bat ateratzen du urteko ekitaldien informazioarekin. Egutegian aholkuak ematen dira, taldearen nahiz Federazioaren txapelketa, sariketen eta ikastaroen berri ere bai. Urteko irteeren egutegia ere liburuxkan argitaratzen da. Orobat, mendizaleentzako informazio interesgarri orokorra ematen da. Une honetan gehienbat erderaz argitaratzen da, baina baditu testu elebidun batzuk, hala nola zenbait izenburu, oharren bat edo beste, beti ere erderari lehentasuna emanda. Iragarki komertzialak izaten ditu, argitaratzeko diru-laguntza ematen duten dendenak.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 2

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Taldearen urteko egutegia argitaratzea	Euskeraren erabilera duinagoa egitea.	Egutegia elebiduna egingo da, baina ez simetrikoki elebiduna, erdera lehentasunez erabiliko da eta. Dena dela, izenburuetan lehentasun grafikoa emango zaio euskerari. Zati batzuk euskeraz bakarrik agertuko dira, gutxi izan arren, mendizaleentzako informazio orokor interesgarria dutenak. Horrela, euskera jakitea plus bat izango da.	2008KO urria	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Taldearen urteko egutegia berraztertzea		Egutegi bi argitaratzeko aukerak aztertuko dira, euskeraz eta erderaz (diru-laguntzaileak...)	2008KO azaroa	Zuzendaritza & batzorde eragilea

#### 4.1.6. PROIEKTUA: TALDEAREN IKASTAROAK

DESKRIPZIOA: Taldeak urte batzuetan, maiztasun jakinik gabe, ikastaroak antolatzen ditu mendiko teknikei buruz. Orientazioa, neguko teknikak dira arruntenak. Normalean Federazioaren irakasleak etortzen dira.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 2

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Ikastaroen gaineko informazio idatzia: programa eta kartelak	Euskeraz eta erderaz, euskerari lehentasuna emanda.	Ikastaroen gaineko informazioa euskeraz eta erderaz idatziko da, aldi berean eta koordinatuta, baina, ahal bada, pertsona desberdinek. Ondoren, orri desberdinetan inprimatuko dira testuak.	2009KO martxotik	Zuzendaritza
Ikastaroen ahozko hizkuntza	Ikastaroen erdiak euskeraz antolatzea	Kudeaketak egingo dira ikastaroen erdiak euskeraz emateko, Federazioan kasu askotan euskeraz eman ditzaketenak badaude eta. Normalean, ikastaro bera ez da euskeraz eta erderaz emango.	2009KO martxotik	Zuzendaritza
Ikastaroen materiala	Ahal den neurrian, materialak ikastaroa eman den hizkuntzan banatzea	Kudeaketak egingo dira irakasleek, ahal izanez gero, materialak euskeraz ere eman ditzaten.	2009KO martxotik	Zuzendaritza

#### 4.1.7. PROIEKTUA: BULEGOKO AHOZKO HARREMANAK

DESKRIPZIOA: Taldeko gorabehera gehienak batzar edo bilera formaletan ez baina bulegoko harreman informaletan aztertu eta erabakitzen dira. Gainera, egoitza irekitzen den egunetan bertara jotzen dute bazkiderik aktiboenek.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 1

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Bazkideekiko zuzeneko harremanak	Euskeraz edo erderaz izatea da, bazkidearen lehentasuneko hizkuntzaren arabera.	Taldearen egoitzan daudela, zuzendaritzako kideek euskeraz hitz egingo diete euskeraz dakiten eta hitz egiteko prest dauden bazkideei.	2010-2011	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Telefonoko atentzioa	Euskeraz eta erderaz, bazkide bakoitzaren aukeraren arabera	Telefono-deiei euskeraz erantzungo zaie beti, esanez "Arratsaldeon, Deustuko menditarrak. Zertan lagunduko dizut" edo antzeko zerbait.	2007-2011	Zuzendaritza & batzorde eragilea



## **4.2. PROGRAMA: TALDEAREN BARRUKO KUDEAKETA-HARREMANAK**

**DESKRIPZIOA:** Programa honetan sartzen dira taldeak funtzionatzeko barruan egiten dituen kudeaketen inguruko lanak eta, beraz, harremanak, hala nola dokumentuak, komunikazioak, bulegoko harremanak, bilerak eta batzarrak.

### **HELBURU NAGUSIAK:**

- Kudeaketako komunikazio idatzi guztiak bazkide bakoitzak aukeratutako lehentasuneko hizkuntzaren arabera ematea, euskeraz edo erderaz; eta ezin denean, gutxienez ele bietan.
- Kudeaketako ahozko komunikazio guztiak, orokortasunez ematen direnean, ele bietan ematea, euskeratik hasita; indibidualizatua denean, ordea, bazkide bakoitzak aukeratutako lehentasuneko hizkuntzaren arabera ematea, euskeraz edo erderaz.
- Zuzendaritzako kideen arteko harremanak lehentasunez euskeraz izatea.

Argitu behar da programa honetako jardueri jarriko dizkiegun epeak orientabide hutsa direla, eta nolabait gehienezkoak direla, alegia, aurreko programa burutu den bitartean lantzeko aukera ez bada, 2010-2011 edo 2011-2012 urteetan behintzat ekin egin behar litzaiekeela.

**IRAUPENA:** 1-2 URTE

#### 4.2.1. PROIEKTUA: BAZKIDEEKIKO KOMUNIKAZIOAK

DESKRIPZIOA: Taldean bilera gutxi egiten dira. Urteko batzar orokor bat egiten da, urteko jardueraren berri eman eta balorazioa egiteko. Bilerak ere oso arraroak dira beraz.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 2

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Bilera-deiak	Euskeraz edo erderaz emango da, bazkidearen lehentasuneko hizkuntzaren arabera. Aukera ezaguna ez bada, euskeraz bidaliko zaie.	Bilera-deiak euskeraz eta erderaz idatziko dira, aldi berean eta koordinatuta, baina, ahal bada, pertsona desberdinek. Ondoren, orri desberdinetan inprimatuko dira testuak.	2008-2009	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Batzarrak	Informazio ofiziala euskeraz eta erderaz ematea; bazkideek nahi duten hizkuntzan hitz egitea	Zuzendaritzak arautegi bat egingo du batzar eta bileretako hizkuntzen erabilerari buruz. Arautegi horretan arau hauek egongo dira: Zuzendaritzak euskeraz emango die hasiera, eta ondoren erderaz ere bai; informazioa euskeraz emango du lehendabizi, eta erderaz gero. Bazkideek nahi duten hizkuntzan hitz egingo dute; euskeraz egiten badute, mahaiak erderaz laburtuko du bazkideak esandakoa.	2008-2009	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Bilerak	Lehentasuneko hizkuntza euskera izatea edo bestela hizkuntza adostea.	Bilerak lehentasunez euskeraz egingo dira; bestela, bileraren hasieran lehenengo puntua hizkuntza adostea izango da.	2009-2010	Zuzendaritza & batzorde eragilea

#### 4.2.2. PROIEKTUA: ZUZENDARITZAKO AHOZKO HARREMANAK

DESKRIPZIOA: Zuzendaritzako kideek elkarrekin jarduten dute taldea kudeatzen, bilera formaletan ez bada ere.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 2

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Bazkideekiko zuzeneko harremanak	Euskeraz edo erderaz izatea da, bazkidearen lehentasuneko hizkuntzaren arabera.	Taldearen egoitzan daudela, zuzendaritzako kideek euskeraz hitz egingo diete euskeraz dakiten eta hitz egiteko prest dauden bazkideei.	2010-2011	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Telefonoko atentzioa	Euskeraz eta erderaz, bazkide bakoitzaren aukeraren arabera	Telefono-deiei euskeraz erantzungo zaie beti, esanez "Arratsaldeon, Deustuko menditarrak. Zertan lagunduko dizut" edo antzeko zer bait.	2007-2011	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Zuzendaritzako harremanak	Ahal den neurrian, euskeraz izatea	Taldearen egoitzan daudela, Zuzendaritzako kideek euskeraz egingo dute beraien artean, horretarako maila badute (oraingo Zuzendaritzak badu). Dena dela, euskera jakitea ez da kide izateko baldintza izango.	2010-2011	Zuzendaritza & batzorde eragilea

#### 4.2.3. PROIEKTUA: TALDEAREN KUDEAKETA-DOKUMENTUAK

DESKRIPZIOA: Taldeak dokumentu batzuk erabiltzen ditu barruko kudeaketak egiteko. Horietatik batzuk bazkideek ere maiz erabiltzen dituzte, taldearen tresnez eta baliabideez, alegia, zerbitzuez baliatzeko. Gehienak, ordea, kudeaketa-dokumentu hutsak dira. Normalean zerrendak direnez, ez dira konplexuak izaten, urteko txostena eta aktak izan ezik.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 3

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Irteeretarako bazkideen zerrenda	Euskeraz egotea	Inprimakiak euskeraz jarriko dira, itzultzaile baten laguntzarekin	2010-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Kontuen liburua	Euskeraz egotea	Euskeraz jarriko da, itzultzaile baten laguntzarekin	2010-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Materialaren zerrenda	Euskeraz eta erderaz egotea	Euskeraz jarriko da, itzultzaile baten laguntzarekin	2010-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Maileguen zerrenda	Euskeraz eta erderaz egotea	Euskeraz jarriko da, itzultzaile baten laguntzarekin	2010-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Bazkideen fitxak	Euskeraz egotea	Euskeraz jarriko dira, itzultzaile baten laguntzarekin	2010-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Urteko batzarraren txostena	Euskeraz eta erderaz egotea, orri desberdinetan	Euskeraz jarriko da, itzultzaile baten laguntzarekin	2010-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Akten liburua	Euskeraz egotea	Aktak euskeraz jarriko dira.	2010-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Infomatika eta hiztegiak	Euskeraz jarduteko behar diren tresnak egotea	Office euskeraz eskuratuko da, bai eta kudeaketak egiteko oinarritzko hiztegiak ere	2006-2012	Zuzendaritza & batzorde eragilea

### **4.3. PROGRAMA: TALDEAREN KANPOKO ZERBITZU-HARREMANAK**

**DESKRIPZIOA:** Taldeak zerbitzu handia ematen dio komunitateari, baina ia zerbitzu guztiak taldearen barruan ematen ditu. Azpimarratu behar da taldeak barruan eskaintzen dituen zerbitzu guztiak kanpokoentzat irekita daudela. Hori horrela, esan daiteke taldeak zerbitzu bakar bat eskaintzen duela bereziki kanpokoek zuzenduta: ibilaldi neurtuak.

#### **HELBURU NAGUSIAK:**

- Informazio idatzia lehentasunez euskeraz egotea.
- Ahozko informazioa, orokortasunez ematen denean, ele bietan ematea, euskeratik hasita.

Argitu behar da programa honetako jardueri jarriko dizkiegun epeak orientabide hutsa direla, eta nolabait gehienekoak direla, alegia, aurreko programa burutu den bitartean lantzeko aukera ez bada, 2012-2013 urteetan behintzat ekin egin behar litzaiekeela.

#### **IRAUPENA: URTEBETE**

#### 4.3.1. PROIEKTUA: IBILALDI NEURTUAK

DESKRIPZIOA: Taldeak ibilaldi bat antolatzen du edonongo mendizaleentzat. Izena eman behar dute ibilaldi horretan parte hartzeko. Bidean denbora-kontrolak jartzen dira, eta mendizaleek ibilaldian egindako denbora-tarteak erregularrak diren ala ez neurtzen da. Azkenean, erregularrei sariak ematen zaizkie. Beraz, nolabaiteko txapelketa bat da.

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 3

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Programak eta kartelak	Euskeraz lehentasunez.	Programa eta kartel gehienak euskeraz egingo dira, suposatuz euskera erraza gaur egungo mendizale gehienek ulertzen dutela; hala ere, ale programa batzuk erderaz ere bidaliko dira mendizale-talde bakoitzera.	2012-2013	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Sarien inskripzioak	Euskeraz	Domina eta kopetako inskripzioak euskeraz egingo dira.	2012-2013	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Ahozko harremanak	Euskeraz eta erderaz. Orokorrak direnean, euskeraz lehentasunez, banakakoak direnean, mendizale bakoitzak nahiago bezala.	Ibilaldiaren aurkezpena eta jarraibide orokorrak euskeraz eta erderaz emango dira, euskeratik hasita; banaka egindako kontsultak eta eskatutako informazioak interesatuaren hizkuntzan emango dira. Taldeko kideek lehenengo hitza euskeraz egingo dute.	2012-2013	Zuzendaritza & batzorde eragilea

#### **4.4. PROGRAMA: TALDEAREN KANPOKO KUDEAKETA-HARREMANAK**

**DESKRIPZIOA:** Taldeak kudeaketa-harremanak ditu beste mendizale-taldeekin eta erakunde publiko desberdinekin:

- Bizkaiko eta Euskadiko Mendizaleen Federazioarekin, federazio-karnetak, ekitaldiak, ikastaroak, batzar orokorrak direla kausa.
- Bilboko udalarekin eta Bizkaiko Diputazioarekin ekitaldi-programak eta diru-laguntzengatik.
- Beste mendizale-taldeekin, ibilaldiak, ikastaroak eta antzeko ekitaldiengatik.

#### **HELBURU NAGUSIAK:**

- Erakunde publikoekiko idatzizko harremanak euskeraz izatea.
- Erakunde publikoekiko ahozko harremanak euskalduntzen joatea.
- Federazioarekiko eta mendizale-taldeekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskalduntzen joatea.

Argitu behar da programa honetako jardueri jarriko dizkiegun epeak orientabide hutsa direla, eta nolabait gehienezkoak direla, alegia, aurreko programa burutu den bitartean lantzeko aukera ez bada, 2012-2013 urteetan behintzat ekin egin behar litzaiekeela.

#### **IRAUPENA: URTEBETE**

#### 4.4.1. PROIEKTUA: BILBOKO UDALAREKIKO ETA BIZKAIKO DIPUTAZIOAREKIKO HARREMANAK

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 3

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Bidaltzen dugun eta jasotzen dugun dokumentazioa	Euskeraz lehentasunez, gutxienez ele bietan.	Gutuna bidaliko zaie erakunde horietan gurekin harremanetan jarduten duten organoei esanez nolako plangintzan murgildu garen eta aurrerantzean dokumentazioa euskeraz edo, gutxienez, ele bietan jaso nahi dugula. Orobat, argi utziko diegu ahozko harremanak lehentasunez euskeraz nahiago ditugula eta, ezin badute, horretarako epe bat hitzartu nahi dugula. Harremanetarako protokolo bat adosteko eskatuko diegu.	2012-2013	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Ahozko harremanak	Euskeraz lehentasunez.	Goiko laukian azaldutako komunikazioa eta protokoloa. Ahozko harremanen kasuan konpromiso jakin batzuk eskatuko ditugu eta epe batzuk adosten saiatuko gara.	2012-2013	Zuzendaritza & batzorde eragilea



#### 4.4.2. PROIEKTUA: MENDIZALEEN FEDERAZIOEKIKO ETA MENDIZALEEN TALDEEKIKO HARREMANAK

IRAUPENA: IRAUNKORRA

LEHENTASUNA: 3

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>ERABILERA-IRIZPIDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Federazioekiko idatzizko eta ahozko harremanak	Harremanetan euskera sartzen joatea.	Federazioei gutuna bidaliko zaie esanez nolako plangintzan murgildu garen eta dokumentazioa euskeraz jaso nahi dugula edo, gutxienez, ele bietan. Orobat, argi utziko diegu ahozko harremanak lehentasunez euskeraz nahiago ditugula eta. Hori guztia horrela izan dadin pauso eta epe batzuk adosten saiatuko gara, eta ahal den neurrian, baita protokolo bat ere.	2012-2013	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Beste mendizale-taldeekiko idatzizko eta ahozko harremanak	Harremanetan euskera sartzen joatea.	Taldeei gutuna bidaliko zaie esanez nolako plangintzan murgildu garen eta gustatuko litzaigukeela, ahal duten neurrian, dokumentazioa euskeraz edo ele bietan jasotzea, bai eta ahozko harremanak ere.	2012-2013	Zuzendaritza & batzorde eragilea

#### **4.5. PROGRAMA: PRESTAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA**

**DESKRIPZIOA:** Programa hau ez dago aurreko programekiko erlazio hierarkikoan, zehar-lerro bat denez gero. Egitasmo honen beste atal batean esan dugunez, Zuzendaritzako kideek eta batez ere batzorde eragilekoek prestakuntza eta aholkularitza berezi baten premia eduki dezakete. Printzipioz, premia hori ez litzateke handia izan beharko, zeren eta, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta plangintza honek aukera eskasagoak izango ditu arrakastatsua izateko. Gainera, Zuzendaritzako kideek badakite euskeraz idazten eta itxaroteko modukoa da batzorde eragileko kideek ere jakitea. Dena den, ziur aski, nolabaiteko laguntza beharko dute.

#### **HELBURU NAGUSIAK:**

- Zuzendaritzako eta batez ere batzorde eragileko kideen idazmen-maila hobetzea.
- Zuzendaritzako eta batez ere batzorde eragileko kideek itzulpengintzako oinarrizko nozio batzuk izatea.
- Zuzendaritzako eta batez ere batzorde eragileko kideek noizean behin hizkuntza-normalizazioaren gaineko aholkularitza izatea.

#### **IRAUNPENA: PRESTAKUNTZARAKO URTEBETE, AHOLKULARITZA ETENGABEA**

#### 4.5.1. PROIEKTUA: PRESTAKUNTZA ETA AHOLUKARITZA

<b>JARDUERAK</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>XEDEA</b>	<b>NEURRIA</b>	<b>NOIZTIK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Idazmena lantzea	Zuzendaritzako eta batez ere batzorde eragileko kideen idazmen-maila hobetzea.	Bilboko euskaltegiekin harremanetan jarriko gara ikastaro berezien berri izateko eta dagoen tokian matrikula egiteko. Gutxienez, batzorde eragileko guztiek egin behar lukete.	2006-2007	Zuzendaritza & batzorde eragilea
Itzulpengintzako oinarritzko nozioak	Zuzendaritzako eta batez ere batzorde eragileko kideek itzulpengintzako oinarritzko nozio batzuk izatea.	Bilboko euskaltegiekin harremanetan jarriko gara ikastaro berezien berri izateko eta dagoen tokian matrikula egiteko. Gutxienez, batzorde eragileko guztiek egin behar lukete.	2006-2007	
Normalizazioaren arloko aholkularitza	Zuzendaritzako eta batez ere batzorde eragileko kideek noizean behin hizkuntza-normalizazioaren gaineko aholkularitza izatea.	Erakunde publikoekin harremanetan jarriko gara etengabeko aholkularitza eskatzeko, bereziki Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren esparruan.	2006-2007	Zuzendaritza & batzorde eragilea

## 5. EBALUAZIOA

Mendizale-talde baten plangintza baten aurrean sortzen den galdera da ebaluazioa egitea ez ote den gehiegizko karga bat izango, plangintzaren berezko zama onura argirik gabe are astunago egingo dena, gogoratu behar baita aisia-talde bat dela, euskeraren erabilera interesgune eta ardatz ez duena, baliabide eskasak eta funtzionamendu erraza dituen. Guztiarekin ere, nolabaiteko gogoeta egin behar da beti programatu dugunari buruz, bestela ez baitugu jakingo zertan huts egin dugun eta nola zuzendu behar dugun eta, ondorioz, ahaleginen zati bat alferrik galduko dugu. Kontua da, nola asmatu dugu ebaluazio arina, erraza eta aldi berean behar bezain onuragarria egiten?

Hasteko, bazter utziko nituzke ohiko teknizismoak eta modernidadeak, esan bahi baita, ohiko inkestak eta adierazle taulak. Izan ere, horrelako ebaluazio-teknikek sistema oso konplexu baten aurrean egon ezik, ahalegin gehiago eskatzen dute plangintzako helburuak lortzeko jarduerak eta ekintzek baino. Gure kasuan, sistema ez da hain konplexua izango, edo, bestela, txarto diseinatuko dugu plangintza. Beraz, elementurik garrantzitsuenei dagokienez, zuzenean eta tokian bertan begiratuta, argi ikusiko da zer lortu den eta zer ez, eta zergatik.

Horiek horrela, gure ereduak partaidetza eta etengabeko ebaluazio iraunkor bat eskatzen digu. Bestalde, dakigunez, komeni da ebaluazio orokor bat ziklikoki egitea.

### 5.1. ETENGABEKO EBALUAZIOA

Bide bi ditugu etengabeko ebaluazioa burutzeko:

- Eztabaida-taldea: egiten dugun guztia talde horretan aurkeztu eta eztabaidatuko da. Talde horri, gainera, egiten den guztiaren etengabeko jarraipena egiteko eginkizuna ere emango diogu.
- Programa bateko jarduera bat burutu eta, gehienez, hiru hilabetetara "postontzi mugikorra" jarriko dugu martxan: taldearen irteeretan eta egoitzan bertan orri bana banatuko diegu iritziak eman eta balorazioak egin ditzaten. Era berean, nahi dutena iradokitze tokia egongo da. Erantzun anonimoak izango dira.

## **5.2. EBALUAZIO ZIKLIKOA**

Urtero ebaluazio orokor bat egingo dugu gauzatutako programak eta jarduerak kontuan hartuta. Ebaluazio horietan neurtuko dugu programa bakoitzeko helburuak bete diren ala ez eta, bete ez badira, hutsaren arrazoia zein izan den. Era berean, neurri zuzentzaileak eta helburuak, berriak nahiz zaharrak, lortzeko egutegi berria ere proposatu beharko da. Honelako taula bat erabil daiteke programa bakoitzeko:

## 4.2.PROGRAMA: TALDEAREN BARRUKO KUDEAKETA-HARREMANAK

PROIEKTUA: BAZKIDEEKIKO KOMUNIKAZIOAK

JARDUERA	ERABILERA-IRIZPIDEA	LORTUA	LORTUA EZ: ARRAZOIAK <sup>1</sup>	NEURRI ZUZENTZAILEAK	
				NEURRIAK	EGUTEGIA
XXX					
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			

PROIEKTUA: ZUZENDARITZAKO AHOZKO HARREMANAK

JARDUERA	ERABILERA-IRIZPIDEA	LORTUA	LORTUA EZ: ARRAZOIAK <sup>1</sup>	NEURRI ZUZENTZAILEAK	
				NEURRIAK	EGUTEGIA
XXX					
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			
XXX		BAI /EZ			

Ebaluazio orokor bakoitzaren emaitzak eztabaida-taldeari ez ezik, bazkideei ere helaraziko zaie, iritziak eta iradokizunak eman ditzaten. Horretarako orri informatiboak bana daitezke bai taldearen irteeretan, bai egoitzan, eta bilera informatibo berezietara deituko zaie interesa daukatenei.

Azkenik, taldearen urteroko batzarrean ere ebaluazio zikliko nahiz etengabekoaren berri emango da kudeaketa-txostenaren barruan, eta eztabaidagai izango da batzar horretan.

## IV. AZKEN GOGOETA

Lan honetan saiatu naiz normalizazio-plangintza erraz baten proiektua egiten, baina kilker batek belarrira esaten dit proiektu hori konplexu, zail eta astun samarra izan daitekeela mendizale-talde batentzat, Bilbon behintzat, nahiz eta, Bilboko taldea izateko, baldintza ona samarra erakusten dituen talde bat aukeratu. Lan honen beste toki batean esanda daukat proposatu dudan plangintza mota nolabaiteko konponbidea izan daitekeela ohiko mendizale-taldeetan dauden euskaldunentzat, neurri batean euskaldun bezala bizitzen laguntzeko, baina ez dudala uste Bilboko euskaldunentzat konponbide bat denik. Are gehiago, Deustuko Menditarrak taldean plangintzarik arrakastatsuen ere amildegia ertzean egongo da beti, noiz eroriko; eta gaur ez bada, bihar edo etzi eror liteke, esfortzu handiz urte batzuetan eraikitako etxea lurrikara batek kolpe batean erraustuta. Noiz? Etxea eraiki zuen kemena makaldu, esfortzua lasaitu eta bigundu bezain pronto. Gauza jakina da gainera datorkigun ormarik ezin zaiola eten gabe utzi, esfortzuak ez direla betirako. Bide egokiagoak, errazagoak, iraunkorragoak bilatu behar dira.

Beraz, lan honetan landu dudan normalizazio-proiektua gehiegizkoa da inguru erdaldun bateko aisia-talde eta kultur elkarte batentzat, esfortzu handia, eta arrakasta, handi samarra balitz ere, guztiz iragankorra. Ez du merezi horretan indarrak xahutzea, beti eskasak izaten dira eta. Egoera irauliko balitz beste mundu baten aurrean geundekete. Agian pentsa daiteke mundu horren bila abiatu behar dela aztertu dugun proiektuen antzekoekin, mundu hori helduko bada, baina horretarako, gutxienez, zeruertzean iraultza hori antzematen hasita egon behar da, eta neuk behintzat ez dut nabaritzen. Aurrean, hurbil nahiz zeruertzean, beste egoera bat ikusten dut, eta horri ondoen egokitzen zaizkion proiektuak bultzatu behar direlakoan nago. Euskal hiztun-elkarteak, minoria izanik, arnas hartzeko espazioak behar ditu, ez maratoian parte hartzeko ekipamenduak. Espazio elebakarrak, trantsizio elebidunik gabe. Estrategia ez da Deustuko Menditarrak taldean espazio elebidunak bilatzea. Bistan denez, orain arte azpimarratu dudan proiektu elebidunen zailtasun handiegia edo ezintasuna ez da arazoaren adar bat baino besterik, ez enborra.

Argitu dezadan ez dudala defendatu nahi gizarte elebidunik ezin dela egon eta diglosiatik urrundu behar denik, kontrakoa baizik: euskerak, inguru diglosiko batean biziko bada, bere espazioak behar ditu, espazio elebakarrak. Fishmanekin bat, esan dezadan euskeraren arazo nagusia diglosia galduta izatea dela, gero eta erabilera-eremua



muga gutxiago daukan gizarte batean egotea. Hortaz, diglosiaren aldeko postura egiten dut eta, beraz, espazio elebakarren alde.

Baina itzul gaitezen Bilbora. Bilboko euskaldunentzat proposatu izan den konponbide biribila, nire irudiko, amets hutsa da, ziur aski eldarnioa ere bai: Bilbo euskalduntzea. Euskaldunek konponbide apal eta erlatiboagoak behar dituzte, eskueran, etxetik hurbilago, mundu honetakoak, gizarte osoarekin negoziatuagoak. Bilbok eta bere inguruek inguru metropolitano bat osatzen dute, munduko hamaikaren antzekoa, arrunta. Inguru metropolitano bateko minoria linguistiko baten konponbide erlatiboak aurkitu behar ditu Bilboko euskal hiztunen herriak.

Hasteko, hiztun-elkarte bat osatu behar dute Bilboko euskaldunek, zeren oso eztabaidagarria baita hiztun-elkartearen direnik gaur egun. Lehentasuna, beraz, hiztunen taldea trinkotzea, sare soziala osatzea, lotzea, sendotzea, ez hedatzea bilbotar guztiak "euskaldundu" arte. Horretarako, kultur eta jarduera-gune desberdinak osatu behar dituzte, elebakarrak gehienbat. Horregatik, askoz onuragarriagoa izan daiteke euskal hiztun-elkartearentzat mendizale euskaldunetz bakarrik osatutako taldea ezen ez Deustuko Menditarrak eta antzekoak.

Baina bide horiek aurkitzen diren bitartean, horra hor Bilboko mendizale-taldeetako euskaldunak. Ezin zaie deitu mendizale-talde euskaldunak osatzera, lan honen sarreran esan dudana bezala, mendizale-taldeak, onerako eta txarrerako, lagunarteak ere badira eta. Ez dira dantza-akademiak bezalakoak. Euskaldunek beren lagunaren artean jarraituko dute eta hor erderaz mintzatuko. Nolabaiteko laguntza eman dakieke orain arteko mendizale-taldeetan, baina nire proiektua gehiegi da horretarako: nahikoa da erabilera sinboliko handi samar batekin, euskaldunek euskera hizkuntza estimatua dela ikus dezaten .

Lehentsuago adierazi dudanaren ildotik, nire irudiko, Deustuko Menditarrak taldea dela medio esan dudana heda daiteke gainerako aisia-talde eta kultur elkarte gehien edo guztietara.

Amaitzeko, Inazio Markok egindako ohar bat ekarri nahi dut hona, funtsean ados bainago bere ikuspegiaren eta, funtsean, osagarria ikusten baitut, ez kontrajarria:

"Trinkotutako espazioak ezinbestekoak dira. Bateria moduan indarra zabal dezakete eta landu behar dira. Baina horiek hizkuntzan zentratu sortzen dira, interes nagusia hizkuntza da, euskaratik abiatuta sortzen dira. Mendi taldea mendian zentratuta sortzen da, interesa mendia da, zuk esan bezala (tira, eta beste asko ere bai: sozializazioa, lagunartea, osasuna, ....). Beraz, pertsona guztiok ez dugu gure erdigunean balore

bera, nahiz eta balore berdinak izan. Alegia gu bion baloreen artean egon daitezke mendia eta euskara ... eta beste hainbat, baina bakoitzak bere eskala izan. Eta eskala horren arabera joko dugu mendi talde bat bultzatzera edo euskara talde bat sortzera. Eta mendi taldeetan daudenekin ere lan egin beharko da. Hori bai, daukagun energia erabiliko dugu. Bultzatzaileak 10 energia baldin badu eta 8-6-6-5 energia duten pertsonak inguratzea lortzen badu, hainbat gauza egin ahal izango du. Bultzatzailea 5eko energiarekin abiatzen bada, eta inguratzen zaizkionak 3-3-2, egin ahal izango dena beste kontu bat da."

Ez dut bukatu nahi proposatu dudan ildotik sortu berri den ekimen bat aipatu gabe: Mont Blanc eta beste mendi batzuetara igo duen Marimendi elkarte, hor interesgune biak elkartzen baitira: mendizaletasuna eta euskaraz, ahal den neurrian, bizi nahi izatea. Interes biok batera gertatzen ez direnean, interesgarria izan daiteke Deustuko Menditarrak taldea gogoan landu dudan proiektuaren bidea. Hala ere, euskararen bizi-kemenaren, osasun-egoeraren eta suspertze-prozesuaren adierazle garbiagoa iruditzen zait zaletasunekin batera, zaletasunok euskeraz bizi nahi dituzten taldeak ugaltzea, eta norabide emankorragoa, bitarteko beste aukera batzuk mesprezatu gabe.

Onartzeko moduko helburu bakarra Bilbo euskaldun bihurtzea bada, ez dugu behar bezala balioetsiko Bilbo erdaldun eta, agian, urte batzuk barru guztiz poliglota batean, euskararen espazioak eta sareak sortzea. Jarrera hori ulertzen dut, baina ez da nirea. Arrazoi batzuk eman ditut nire ikuspegia bermatzeko; beste batzuk ez ditut eman, ez baitzait zilegi iruditzen. Izan ere, beste arrozoi horiek mundu-ikuskerarekin eta barne-balorazio eta bizipen sakonekin daude lotuta, jakina, neurri handi batean, osagai afektibo eta emozionalak dituztenak. Maila horretan, pertsona guztien arrazoiak egiazkoak iruditzen zaizkit, nireak bezain baliotsuak; edo gauza bera alderantziz esanda, pertsona guztien arrazoiak, diskurtso bat osatzen duten heinean, gezurrezkoak.

## BIBLIOGRAFIA

- ARBURU, Ibon, (1990). Bilbo Euskalduntzen. In: Bat Soziolinguistika aldizkaria, 7-8 zk. Donostia. 79-84 or.
- ERRIONDO, Lore, ALTUNA, Olatz, SUBERBIOLA, Pablo (2006) Diagnosirako egungo garapen teknikoak. In: Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Asmoz Fundazioa (argitaratu gabea)
- EGIZABAL, Diego, (2006) Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua. Teoria eta praktika. In: Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Asmoz Fundazioa (argitaratu gabea)
- EUSKO JAURLARITZA, (1999). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Gasteiz.
- JUARISTI Patxi, (2002) Euskararen Kale Erabilera Bizkaian. In: In: Bat Soziolinguistika aldizkaria, 43 zk. Donostia. 85-95 or.
- MARKO, J. Inazio, (2006) Plangintzaren funts teorikoak eta teknikoak. In: Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Asmoz Fundazioa (argitaratu gabea)
- MARTINEZ, Zesar, BERRIO-OTXOA, Kontxesi, ALTUNA, Olatz, JAUSORO, Nekane, (2006) Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. In: Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Asmoz Fundazioa (argitaratu gabea)
- SÁNCHEZ CARRION, José María, *Aplicación Lingüística de la Territorialidad: márgenes de encuentro, Bilbao y el euskara: sistemas modélicos de interpretación, modelos sistémicos de actuación* (1999). Bilbao. Bilboko Udaletxea.
- SUSPERREGI, Izaro, (2006) Euskal aisiaren azterketa. In: Hizkunea web-orria, Euskadi.net, Eusko Jaurlaritza.
- ZALBIDE Mikel, (2004), Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE. In: Erabili.com web orria.